Zugaztel M.P., S.A.ren digitalizazioko lehen mailako ekipamendua mantentzeko zerbitzua kontratatzeko Klausula Berezien Azala eta Plegua

2023/09/30

ESPEDIENTE ZK.: ZUG009-2023
CPV: 50314000-9

A. KONTRATUAREN XEDEA

Plegu honen xedea da Zugaztel M.P., S.A.ren digitalizazioko lehen mailako ekipamendua mantentzeko zerbitzua kontratatzea.

Prestazioaren izaerak ez du aukerarik ematen erantzun beharreko premiak lotetan banatzeko, horrek arriskua ekarriko bailuke kontratua behar bezala gauzatzeko. Helburuaren izaerak berekin dakar prestazioak koordinatu beharra, eta hori ezinezkoa izan liteke, hainbat kontratista desberdinek lotetan banatu eta gauzatzen dituztelako

B. SUSTATZAILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA

Entitate kontratugilea: ZUGAZTEL, M.P., S.A.

Kanariar Uharteen kalea, 21 -3. solairua
48015 Bilbo
Tel.: 94 656 7717 Faxa: 94 401 23 48 ·
Emaila: erosketakzugaztel@bizkaia.eus

Kontratugilearen profila: Euskadiko Kontratazio-Plataforma.

Kontratazio Organoa: Zugaztel, M.P., S.A.ko zuzendari kudeatzailea

C. LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA, BALIO ZENBATETSIA ETA KONTRATUAREN URTEKOAK

Aurrekontua egiteko kontuan hartu den hitzarmen sektoriala: Informazio Sistemen Aholkularitza Enpresen Estatuko Hitzarmen Kolektiboa.

Hauxe da aurrekontuaren banantzea:

Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua €	9.300,00
BEZ % 21	1.953,00
Guztira lizitaziorako oinarrizko aurrekontua €	11.253,00
Zuzeneko gastuak	8.835,00
Zeharkako gastuak	465,00
Guztira BEZ gabe €	9.300,00

Balio zenbatetsia- BEZ kanpo (SKPL 101. art.) 18.600,00 €

Urtekoak (BEZ barne):

Urtekoa	*Zenbateko zenbatetsia (BEZ barne)*
2024	5.626,50 €
2025	5.626,50 €

D. TRAMITACIÓN PROZEDURA

Prozedura irekia eta izapidetze arrunta, eta adjudikazio-irizpide bakarra duela.

E. PROPOSAMENAK JASOTZEKO EPEALDIA

2023/10/26ko 12 orduak arte (GMT + 1).

F. ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA

Proposamenak horretarako prestatutako helbide elektronikoan aurkeztuko dira (https://apps.bizkaia.eus/sede-lantik/licitacion/oferta/asisteteInscripcion?numexpediente=ZUG009-2023) iragarkian zehazten den epean eta ordua baino lehen, eskaintzak sinadura elektroniko

aitortuaren bidez sinatuta egon behar du, plataformak onartutako konfiantzazko zerbitzu elektronikoen emaile batek baliozkotasunez jaulkita, eta dokumentuaren, eskaintzaren eta harekin lotutako dokumentu guztien nortasuna eta osotasuna bermatzen dituena, azaroaren 11ko 6/2020 Legean (konfiantzazko zerbitzu elektronikoen alderdi jakin batzuk arautzen dituena) eta kontratazio publiko elektronikoko gainerako xedapenetan xedatutakoaren arabera.

Gutun-azal digitalaren zerbitzua enpresa lizitatzaileentzat eskuragarri egongo da gaitutako Interneteko helbidetik. Helbide horretatik, eskaintza prestatzeko eta aurkezteko web-inprimakiak eskuratu ahal izango dira. Zure proposamena bidaltzeko unean, aitortutako ziurtapen-erakunde batek emandako ziurtagiri digital batekin sinatu beharko duzu eskaintza.

Une horretan, nabigatzailetik, baina lizitatzailearen ordenagailutik bertatik, eskaintza jatorrian zifratuko da, lizitazio-plataformara kanal seguruaren bidez bidaliko da eta gordailu seguruan gordailutuko da, eta bertan zainduko da, beharrezko sarbide-eskubideekin bakarrik berreskuratu ahal izan dadin. Sarbide-eskubide horiek izendatutako telefonoek baino ez dituzte, eta ezarritako irekiera-unea iritsitakoan baliozkotu beharko dute beren nortasuna. Edozein arrazoi dela-eta enpresa lizitatzaileak ezin badu eskaintza bidali, bi fasetan bidali ahal izango du eskaintza:

Lehenengo fasean, enpresa lizitatzaileek posta elektronikoz (erosketakzugaztel@bizkaia.eus) aurkeztu ahal izango dute eskaintzaren aztarna digitala, baldin eta eskaintzak aurkezteko epemugaren barruan bidaltzen badira. Eskaintzaren aztarna elektronikoa (hash) honako hau da: eskaintzaren edukiarekin zalantzarik gabe erlazionatuta daudela bermatzen duen sortze-prozesua duten datuen multzoa, eskaintzaren edukiak izan ditzakeen aldaketak detektatzeko aukera ematen duena, eskaintzaren osotasuna bermatuz; izan ere, lizitatzaileak bidali duen unetik edukia aldatu ez dela egiaztatzeko aukera ematen du. Lizitatzaileek beren eskaintzaren hatz-marka elektroniko transkribatua (ez irudia) bidali beharko dute posta elektronikora (erosketakzugaztel@bizkaia.eus), aipatu espediente-zenbakia eta lizitatzailearen identifikazio-datuak adierazita, Kontratazio Mahaiak aztarna digital hori eta eskaintza bidali ondoren aurkeztutako eskaintzaren aztarna bat datozela egiaztatu ahal izateko.

Bigarren batean, eskaintza bera igorri beharko dute, lizitazio elektronikorako gaitutako ohiko mekanismoaren bidez, gehienez ere 24 orduko epean, hatz-marka digitala bidaltzen dutenetik zenbatzen hasita. Adierazitako epean bigarren bidalketa hori egiten ez bada, eskaintza kendu egin dela ulertuko da.

Artxiboa kaltetuta dagoelako ezin bada eskaintza baten edukira sartu, lizitatzailearen ekipoan automatikoki sortutako tokiko kopiara jo daiteke, eskaintzaren aztarna digitala kontratazio-organoaren esku dagoenarekin bat datorrela egiaztatuz.

Eskaintza bidaltzen duen pertsona alde batera utzita, eskaintza elektronikoa enpresaren edo erakundearen izenean eta ordezkaritzan kontratatzeko ahalmen nahikoa duen pertsonak sinatu beharko du. Beraz, bi aukera eskaintzen dira:

1) edo eskaintza osoa sinatzen da elektronikoki, enpresa edo erakundeko ahalordedunen ziurtagiriarekin, eta horrek aplikazioaren formularioetan sartutako informazioa baliozkotzen du.

2) edo eskaintza ziurtagiri digitala duen pertsona batek bidaltzen du, eta eskaintzaren eskaintza elektronikoa osatzen duten dokumentu elektronikoak eransten dira, enpresaren edo erakundearen izenean eta ordezkaritzan kontratatzeko ahalorde nahikoa duen pertsonak sinatuak.

G. BEHIN-BEHINEKO BERMEA

Ez da ezarri.

H. BEHIN BETIKO BERMEA ETA ASEGURUAK

Adjudikazioaren zenbatekoaren % 5eko abala eratu beharko da kontratazio-organoaren eskura, BEZ kenduta.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 111. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuli edo ezereztuko da bermea, berme-epea amaitu eta adjudikaziodunak kontratu-betebehar guztiak bete ondoren.

Erakunde ASEGURATZAILEAREN ZIURTAGIRIA eduki behar da, egiaztatzen duena indarrean duela erantzukizun zibil, patronal eta profesionaleko poliza bat, eta ezbehar bakoitzaren kalte-ordainaren muga, gutxienez, 300.000,00 €-koa dela.

I. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Ez dagokio.

J. ZERBITZUA GAUZATZEKO TOKIA ETA EPEA

Gauzatzeko/entregatzeko tokia: ZUGAZTEL

Kontratuaren iraupena: 2 urte, 2024ko urtarrilaren 1ean hasita

K. BERME-EPEA

Ez dagokio.

L. PUBLIZITATE-GASTUAK

Ez dagokio.

M. ALDAGAIAK ONARTZEA

Ez dagokio.

N. KAUDIMEN EKONOMIKOA, FINANTZARIOA ETA TEKNIKOA EDO PROFESIONALA ETA SAILKAPENA

A) Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa.

Lizitatzaileak kaudimen ekonomikoari dagokion baldintza betetzen duela ulertuko da baldin eta honako hau egiaztatzen badu: amaituriko azken hiru urteetako bolumenik handieneko urteari dagokion urteko negozioen bolumena balio zenbatetsia baino bat eta erdi aldiz handiagoa bada (BEZ kanpo).

B) Kaudimen teknikoa eta/edo profesionala.

Kontratazioaren xede diren lanak egiteko, enpresa eskaintzaileak egiaztatu behar du azken hiru (3) urteetan gutxienez hiru (3) erakunderi eman diela zerbitzu hori (adierazi zein).

Kaudimena egiaztatzeko bitartekoak:

Plegu honen **2. ERANSKINEAN** jasotako Europako kontratazio-dokumentu bakarraren formulario normalizatuaren bidez, **eskatutako kaudimen-baldintza guztiak betetzeari buruzko datuak osatuz** eta behar bezala **sinatuta**. EKAB agirian berariaz adierazi beharko da kaudimen teknikoko edo profesionaleko baldintzak betetzen direla N.B) atalean eskatzen diren giza baliabideei eta/edo materialei dagokienez, eta lizitatzaileak dituen baldintzak aipatu beharko dira

Era berean, Plegu honen 9.16 klausulan eta SPKLren 150. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, kalitate-prezio erlazio onena duen eskaintza gisa hautatu ondoren, kaudimena egiaztatu beharko da honako agiri hauen bidez:

1. Kaudimen ekonomikoa egiaztatzea:
    a. SPKLren 87. artikuluan adierazitako agirien bidez.

2. Kaudimen teknikoa edo profesionala egiaztatzea:
    a. Exekuzio onaren ziurtagirien bidez, bai eta behar bezala betetako 3. eta 4. eranskinen bidez ere.

Erregulazio harmonizatuaren pean ez dauden kontratuetan, kontratista enpresa sortu berria denean, hau da, bost urte baino gutxiagoko antzinatasuna duen enpresa denean, haren kaudimen teknikoa egiaztatuko da Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 90. artikuluaren b) eta g) letren artean aipatzen diren bideetako baten edo batzuen bidez, eta ez da inola ere aplikagarria izango a) letran ezarritakoa, hau da, zerbitzuen gauzatze-kopuru jakin bat.

O. ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK

Hona hemen adjudikaziorako oinarri izan behar duten irizpide orokorrak (gehienez, 100 puntu):

- Formula bidez edo automatikoki egindako balorazioaren mendeko irizpideak

1. Prezioaren araberako balorazio ekonomikoa. Gehienez, 100 puntu.

   Lehen irizpidearen balorazioa egiteko (prezioa), Ob/Oi x 100 formula erabiliko da, non Ob eskaintza ekonomikoena den, Oi baloratu beharreko lizitatzailearen eskaintza, eta 100 erabakitako haztapenaren baloraziorako koefizientea. Gutxieneko prezioak izango du puntuaziorik handiena.

   Proposamen ekonomikoa Proposamen Ekonomikoaren Ereduarekin bat etorriko da, eta 1. ERANSKINEAN zehaztuta dago.

   Balio anormalak edo neurrigabeak dituzten eskaintzei dagokienez (SPKLren 149. art.), neurrigabea da urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 85. artikuluan ezarritakoa betetzen duen proposamen oro. Proposamen anormala edo neurrigabea zehazteko, 149. artikuluko 3. eta 4. paragrafoak hartuko dira aintzat.

   ZUGAZTEL, M.P., S.A.ren iritziz, barne daude, eskainitako prezioen barruan, adjudikaziodunari eskatutako lanak egiteagatik sortzen diren gastu guztiak, baita zergak, gastuak eta tasak ere, BEZ barne betiere.

   Edonola ere, lizitatzaileak eskainitako prezioaren barruan sartu beharko ditu kontratuaren xedea betetzeko behar diren elementu eta unitateak.

P. ZIGORRAK

Baldintza teknikoen agiriko 3.1 idatz-zatian ezarritakoaren arabera, eta, subsidiarioki, agiri honetako 12.5 klausularen arabera.

Q. LUZAPENAK

Urteko bi luzapen.

R. PREZIOAREN ORDAINKETA

Zerbitzuen fakturazioa hilerokoa izango da, ZUGAZTEL, M.P., S.A.k emandako zerbitzuak onartu ondoren.

Hileko faktura jasotzen denetik hasita 30 egun naturaleko epean ordainduko da. Aldez aurretik ZUGAZTEL, M.P., S.A. egindako lanekin ados agertu beharko da.

S. OHARRAK

Euskarriari buruzko kontsultarik egin nahi izanez gero, gaituta dago eremu bat hemen: www.zugaztel.bizkaia.eus, kontratugilearen profila =>lizitazio elektronikoa=> euskarria.

Espediente honi buruzko jakinarazpen guztiak elektronikoki egingo dira.

T. AZPIKONTRATAZIOA

Ez da egokia.

U. ALDAKETAK

Ez dagokio.

U. KONTRATUA GAUZATZEKO ARDURADUNA

Ikus pleguaren 13. atala.

V. KONTRATAZIO-ARLOKO ERREKURTSO BEREZIA

Ez dagokio.

W. SUBROGAZIOA ETA BESTE BATZUK

Ez dagokio.

1. ARAUBIDE JURIDIKOA.....

2. KONTRATUAREN XEDEA.....

3. LIZITAZIOAREN OINARRI-AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA.....

4. ADJUDIKATZEKO ERA.....

5. GAUZATZEKO EPEA. .....

6. PRZEZIOAK BERRAZTERTZEA.....

7. PROPOSAMENAK AURKEZTEA. .....

8. PROPOSAMENEN EDUKIA.....

9. KONTRATAZIO-MAHAIA. PROPOSAMENAK IREKI ETA AZTERTZEA. .....

10. KONTRATUA FROMALIZATZEA ETA HOBETZEA. .....

11. ALDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.....

12. KONTRATUA GAUZATZEA. .....

13. KONTRATUA GAUZATZEKO ARDURADUNA (AZALEKO "V" ATALA). .....

14. KONTRATUA ALDATZEA.....

15. LUZAPENA .....

16. KONTRATUA ETETEA.....

17. JASOTZEA ETA LIKIDAZIOA. .....

18. KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATAZIOA.....

19. KONTRATUA AZKENTZEA ETA SUNTSIARAZTEA ETA BERME-ALDIA.....

20. ERREKLAMAZIOAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA. .....

1. ARAUBIDE JURIDIKOA.

1.1. Plegu honen xede den kontratua kontratu pribatua da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoaren arabera, eta honako hauek arautuko dute: klausula partikularren plegu hau (AKPP), dagokion zehaztapen teknikoen plegu eta, hala badagokio, pleguan erantsitako dokumentazio osagarria.

1.2. Kontratua 9/2017 Legearen 26.3 artikuluan ezarritakoaren arabera arautuko da. Plegua, horri erantsitako agiriak edo aplikatu beharreko arauak ez ezagutzeak ez du salbuetsiko enpresa horiek betetzetik.

1.3. Edonola ere, lanak egingo dituzten langileei dagokienez, horiek kontratatzen dituzten enpresariek lan eta gizarte arloetan indarrean dauden legeak bete beharko dituzte.

1.4. Kontratua, erantsitako dokumentuak, edo Administrazioak hitzartutakoa betetzeko ematen dituen jarraibideak, pleguak edo bestelako arauak ez ezagutzeak ez du enpresaria haiek bete beharretik askatuko.

1.5. Horregatik guztiarengatik, klausula berezien nahiz zehaztapen teknikoen pleguek eta dokumentazio osagarriak, kontratua formalizatzen duen dokumentuak eta eskaintzaile adjudikaziodunak eskain ditzakeen hobekuntzek kontratuaren izaera dute. Era berean, kontratuaren barruan sartuko da eskaintzaile adjudikaziodunak aurkeztutako proposamena.

1.6. Eskaintzaileek, eskaintza aurkezteagatik, berariaz eta baldintzarik gabe plegu honetan xedatutakoa onartuko dute. Kontratua adjudikatu eta formalizatu ondoren, pleguaren eta gainerako kontratu-dokumentuen artean kontraesanen bat egonez gero, betiere, lehentasunez, ABBAak xedatuta aplikatuz ebatziko da. Halaber, lizitazio eskaintza aurkezteak ZUGAZTEL, M.P., S.A.ren Kode Etikoa onartzea dakar.

2. KONTRATUAREN XEDEA.

Plegu honetan dagoen AZALEKO "A" ATALEAN azaldutakoa izango da kontratuaren xedea, eta Zehaztapen Teknikoei buruzko Txostenean dauden zehaztapen teknikoen arabera bete beharko da. Hori kontratuaren zati izango da.

3. LIZITAZIOAREN OINARRI-AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA.

Kontratazio honetarako lizitazioko oinarri-aurrekontua plegu honen AZALEKO “C” ATALEAN adierazitako diru kopurua da, eta bertan aurreikusitako urtekoetan

banatuko da. Hura kalkulatzeko kontuan hartu dira balorazio faktoreak eta kontratua burutzearen ondoriozko gastuak, alegia, kontratu-agirien eta indarra duen legeriaren arabera adjudikaziodunaren kontura direnak, bai eta mota guztietako zergak ere; horiek partida bereizian ageri dira.

Kontratuaren prezioa adjudikazioaren zenbatekoa izango da, eta inola ere ez da izango lizitazioko oinarri-aurrekontua baino handiagoa. Adjudikazioaren ondorioz lor daitekeen beherakadak, hala behar denean, aurreikusitako urteko zenbateko bakoitzaren beherakada proportzionala ekarriko du.

4. ADJUDIKATZEKO ERA.

Kontratua adjudikatzeko, AZALEKO "D" ATALEAN zehaztutako prozedurari jarraituko zaio, SPKLren artikuluetan ezarritakoei jarraituz.

Kalitatea-prezioa erlaziorik onena duen eskaintza aukeratzeko hainbat irizpide balioetsiko dira, AZALEKO "O" ATALEAN identifikatuta daudenak.

5. GAUZATZEKO EPEA.

5.1. Lanak gauzatzeko epea plegu honetako AZALEKO "J" ATALEAN ezarri da eta lanak hasteko agintzen den datatik hasita lanak jasotzeko egintza formalera arte hartzen du.

Epealdi horretan zehar lanek aurrera egingo dutela bermatzeko epe partzialak ezarri behar dira; horiek eskaintzako Lan Planetik ondorioztatuko dira, edo ZUGAZTEL, M.P., S.A.k ezarriko ditu Lan Egitaraua onesten duenean.

Epe horiek guztiak hasiko dira ZUGAZTEL, M. P., S.A.k lanak hasteko baimena ematen duenean.

5.2. Zehaztapen Teknikoen Pleguan berariaz aukera ematen bada lanak egiteko guztizko epea murrizteko, edo epe partzialak edo jardueren antolamendua ezartzen badira, nahitaez bete beharko dira, baldin eta hala eskaintzen edo ezartzen badira, hurrenez hurren.

5.3. Kontratua amaitzen denean, eta alderdi biak horretan bat badatoz, berariaz luzatu ahal izango da kontratua (ikus pleguaren 15. atala) AZALEKO "Q" ATALEAN ezarritakoa baino epe luzeagoa ezin da izan. Aukera hori, alabaina, AZALEKO "Q" ATALEAN jaso beharko da.

6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA.

Plegu honen AZALEKO "I" ATALEAN ezarritakoa beteko da.

7. PROPOSAMENAK AURKEZTEA.

7.1. Proposamenak elektronikoki aurkeztuko dira, Bizkaiko Foru Aldundiaren Lizitazio Elektronikoaren Plataformaren bidez. Elektronikoki lizitatu ahal izateko, lizitatzaileak aldez aurretik deskargatu ahal du eskaintzak aurkezteko aplikazioa, AZALEKO "F" ATALEAN adierazi bezala. Lizitazio Elektronikoaren Plataforman sartzeko Bizkaiko Foru Aldundian onartutako ziurtagiri elektronikoa izan behar du lizitatzaileak. Gehienez, 30 MB-koa da eskaintza elektronikoan eransten den banakako fitxategi bakoitzaren tamaina.

7.2. Eskaintzak osorik edo bi fasetan bidaliko dira bitarteko elektronikoen bidez. Lehenengo, eskaintzaren "hash" aztarna elektronikoa bidaliko da, eta horrekin aurkezpena eginda dagoela ulertuko da ondore guztietarako, eta gero, eskaintza bera, gehienez, 24 orduko epean; bigarren bidalketa hori adierazitako epearen barruan egiten ez bada, eskaintza baztertutzat hartuko dugu.

Eskaintzaren "hash" aztarna elektronikoa datu-multzoa da, eta horiek sortzeko prozesuak bermatzen du zerikusia dutela inolako zalantzarik gabe eskaintzaren edukiarekin, eta horrek edukian izan ditzakeen aldaketak antzeman ditzakeela osotasuna bermatuz, izan ere, egiaztatu daiteke edukia ez dela aldatu lizitatzaileak bidali duenetik.

Lizitatzaileek eskaintza bi fasetan bidaltzea erabakiz gero, adibidez, tamaina dela-eta, bidaltzeko zailtasunak egon daitezkeelako, edo sarean konektatzeko eragozpenak egon daitezkeelako, etab.. eskaintzaren "hash" aztarna elektronikoa bidali beharko dute, edonola ere, eskaintzak aurkezteko epea bukatu baino lehen. Kasu horretan, 24 orduko epea izango dute eskaintza bidaltzeko, eta epea zenbatuko da "hash" aztarna elektronikoa erosketakzugaztel@bizkaia.eus, posta elektronikora bidaltzen duten momentutik, betiere eskaintzak aurkezteko epea baino lehen bidalia. Lizitatzaileek eskaintzaren "hash" aztarna elektroniko transkribatua bidaliko dute (ez irudia) posta elektroniko honetara erosketakzugaztel@bizkaia.eus eta espediente-zenbakia adieraziko dute lizitatzailearen identifikazio-datuekin batera; horrela, Kontratazio-Mahaiak egiaztatu ahal izango du aztarna digital hori bat datorrela aurkeztutako eskaintzaren aztarnarekin, behin bidali eta gero.

Eskaintzaren edukia sartu ezin bada artxiboa kaltetuta dagoelako, lizitatzailearen ekipoan automatikoki sortutako kopia lokalera jo daiteke, eta egiaztatu eskaintzaren aztarna digitala bat datorrela kontratazio-organoak duenarekin.

Eskaintzak aurkez daitezke eguneko 24 orduetan asteko 7 egunetan; eskaintza aurkezteko data eta ordua Bizkaiko Foru Aldundiaren Erregistro Elektronikoak emandako ordezkagirian ageri dira, eta bat etorriko da eskaintzak jasotzeko dagoen epearekin.

7.3. Pertsona fisiko nahiz juridikoek aurkez ditzakete proposamenak (espainiarrek zein atzerritarrek) baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute eta kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, gaitasun tekniko edo profesionala egiaztatzen badute edo, bestela, Eusko Jaurlaritzak edo Estatuko Kontratazio Administratiboko Batzorde Aholku-emaileak emandako zerbitzu-enpresako sailkapena egiaztatzen badute, AZALEKO "N" ATALEAN aurreikusitakoa betez.

7.4. Kontratu jakin bat sinatzeko eskatzen den kaudimena egiaztatu behar denean, enpresaria beste erakunde batzuen kaudimen eta baliabideetan oinarritu ahal izango da, haiekin dituzten loturen izaera juridikoa gorabehera; baina horretarako ezinbestean frogatu behar da kontratua sinatzeko baliabide horiek dituela.

7.5. Halaber, xede horrekin aldi baterako eratzen diren enpresarien taldeek ere aurkeztu ahal izango dituzte proposamenak, SPKLren 69. artikuluarekin bat etorriz. Taldeko enpresari bakoitzak frogatu beharko du jarduteko gaitasuna edukitzeaz gainera, kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta gaitasun tekniko edo profesionala dituela. Horiek guztiak frogatzeko, hurrengo klausuletan aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dituzte eta agiri pribatu batean honako datu hauek eman beharko dituzte: sinatzen duen enpresariaren izena eta inguruabarrak, bakoitzaren partaidetza, kontratua indarrean dagoen bitartean ZUGAZTEL, M.P., S.A.rekin harremanetan egongo den enpresa horien guztien ordezkaria (pertsona edo erakundea) eta enpresen aldi baterako elkarte eratzeko konpromisoa hartu dutela. Agiri hori batasuna osatzen duten enpresa bakoitzeko ordezkariek izenpetu beharko dute.

7.6. Lizitatzaileak proposamena edo eskaera aurkezten badu, plegu honetako klausulak eta gainerako kontratu-dokumentuak onartzen dituela ulertuko da, salbuespenik gabe, eta aurkeztutako datu guztiak zehatzak direla eta zerbitzua kontratatzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela ziurtatzen dela.

7.7. Lizitatzaileek egindako proposamenetan ematen den/diren lizitazio oinarrian/oinarrietan eta kontratua adjudikatzean ezarri den/diren kopuru zehatz eta mugatuan/mugatuetan beti sartuko dira indarreko xedapenen arabera aplikatu beharreko zergak; salbuespen gisa, alabaina, ez da BEZa sartuko, hau aparteko partida moduan agertu beharko baita.

7.8. Lizitatzaile bakoitzak gehienez proposamen bat aurkeztu ahal izango du, baina proposamenean nahi beste aldaera sartu ahal izango da, plegu honetako

AZALEKO "M" ATALEAN adierazitako betekizunak eta baldintzak betetzen badituzte.

Banakako proposamena aurkeztuz gero, ezin izango da beste enpresa batzuekin aldi baterako elkartuta beste proposamenik aurkeztu (lote desberdinetarako proposamenak izan ezean). Lizitatzaileren batek arau hori urratzen badu, berak aurkeztutako proposamen guztiak baztertuko dira.

Kontratua loteetan banatuta badago, lizitatzaileek kontratuaren xede osorako egin ahal izango dute eskaintza, betiere lotez lote banatuta, edo lote bakar baterako, edo erloetariko batzuetarako.

7.9. Agiriak euskarri digitalean bakar-bakarrik aurkeztu beharko dira, euskaraz edo gaztelaniaz idatzita, eta makinaz idatzita edo bestelako tresna mekaniko nahiz informatikoen bidez inprimatuta. Ez da eskuz idatzitako agiririk onartuko.

8. PROPOSAMENEN EDUKIA.

8.1. Lizitatzaileek bi gutun-azal elektroniko aurkeztuko dituzte, lizitatzaileak edo horren ordezkariak sinatuta. Gutun-azal bakoitzaren kanpoaldean LIZITATZAILEAREN IZEN-ABIZENAK EDO ENPRESAREN SOZIETATE-IZENA eta NAN zenbakia edo IFK, helbidea, telefonoa, faxa eta jakinarazpenetarako helbide elektronikoa jarriko dira, bai eta KONTRATUAREN XEDEA ere, baldintzen agiri honen AZALEKO “A” ATALEAN adierazitakoa, hain zuzen.

8.2. Bi gutun-azalak Plegu honen AZALEKO “E” ATALEAN edota lizitazio-iragarkian adierazitako epean eta orduan aurkeztu behar dira.

8.3. “A” gutun-azalean sartuko dira hurrengo 8.5 klausulan deskribatzen diren agirietako baldintzak bete izana egiaztatzen duten agiriak ; “C” gutun-azalean, balorazio automatikoa edo formula bidezko balorazioa duen proposamena, 8.6 klausulan deskribatutako agiriekin.

8.4. Proposamena aurkezten dutenek kontratua onartu beharra izango dute adjudikatuz gero. Proposamena aurkeztuz gero, ezin kendu izango da, ZUGAZTEL, M.P., S.A.k onartutako arrazoi justifikatuengatik ez bada. Proposamen bat arrazoi justifikaturik gabe kentzen bada, lizitatzaileari behin-behineko bermea bahituko zaio, berme hori jartzeko eskatu bazaio AZALEKO “G” ATALAREN arabera.

8.5. "A" gutun-azala: Aldez aurreko baldintzak bete izana egiaztatzen duten agiriak

8.5.1 Jarduteko gaitasuna, kontratatzeko debekurik ez dagoela, kaudimen ekonomikoa edo finantzarioa eta teknikoa edo profesionala egiaztatzeko, lizitatzaileek, INPRIMAKI AZALAREN “N” ATALAK zehaztutakoaren arabera, Europako kontratazio dokumentu bakarra beteta aurkeztu

beharko dute, 2. ERANSKINeko eta dagokien gainerako ERANSKINeko ereduari jarraituz, 1. ERANSKINA eta Prebentzioari buruzko ERANSKINA izan ezik.

8.5.2 Hainbat enpresak aldi baterako batasunean parte hartzen badute lizitazioan, batasuneko enpresariek jarduteko gaitasuna eta kaudimena dituztela frogatu beharko dute banan-banan, aurreko ataletan adierazitako moduan. Kontratisten sailkapenaren ondorioetarako -halakorik badago-, SPKLren 77. artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaie.

ZUGAZTEL, M.P., S.A.ren aurrean batasuna eraginkorra izan dadin, nahikoa izango da batasuna eratzeko konpromisoaren idazkian enpresari guztien izenak eta inguruabarrak jarri eta bakoitzak duen partaidetza adieraztea, eta kontratuak indarrean dirauen bitartean enpresari guztiak Sozietatearen aurrean ordezkatuko dituen pertsona edo erakundea izendatzea. Ordezkariak erantzukizun solidarioa izango du ZUGAZTEL, M. P., S.A.ren aurrean.

Lizitazioa enpresen batasunari adjudikatuz gero bakar-bakarrik, enpresek ZUGAZTEL, M. P., S.A.ri frogatu beharko diote batasuna eskritura publikoaren bidez eratu dutela, eta batasunaren ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko dute, eta ahal nahikoak eman, kontratua amaitu arte kontratutik sortzen diren eskubideak erabiltzeko eta betebeharrak betetzeko.

Enpresarien aldi baterako batasunek kontratua azkendu arte iraungo dute.

8.5.3 Talde bereko enpresek, horrela ulertuta Merkataritzako Kodearen 42.1 artikuluan jasotakoren batean daudenak, eta adjudikazioan banaka lehiatzeko proposamenak aurkezten dituztenek egoera horretan daudela adierazten duen aitorpena aurkeztu beharko dute.

Halaber, Merkataritzako Kodearen 42.1 artikuluan ezarritako punturen batean lehiatzeko proposamenak aurkezten dituzten sozietateek bazkideei buruzko aitorpen esplizitua aurkeztu beharko dute.

8.5.4 Aipatutako agiriren bat aurkezten ez bada edo aurreko ataletan ezarritakoa zorrotz betetzen ez bada, gerta daiteke eskaintza ez onartzea, salbu eta akats materialak zuzentzeari buruzko HAKLAOko 81. artikuluan ezarritakoa.

8.5.5 Hala badagokio, eskaintzaileak azpikontratatzea aurrez ikusia duen kontratuaren zatia identifikatuko da. Zenbatekoa eta azpikontratisten izena edo enpresa-profila (kaudimen profesional edo teknikoaren baldintzei jarraituz) azalduko dira.

8.6. "C"gutun-azala: Balio-judiziorik ez duen proposamena.

Hauxe sartuko da gutun-azalaren barruan, beharrezkoa bada:

- "C-1" gutun-azala: Proposamen ekonomikoa. Agiri honetako I. ERANSKINeko proposamen-ereduaren arabera egingo da (prezioak ez du gaindituko gehieneko aurrekontu baimendua), eta zehaztapen teknikoei buruzko txostenean adierazitakoaren arabera. BEZari dagokion zenbatekoa partida lokabe moduan agertuko da beti.

  Aurkeztutako eskaintzak (BEZ salbu) zerbitzua emateko beharrezko diren zergak eta jasanarazitako gastuak, aseguruak, muga-zergak, lizentziak eta era guztietako baimen guztiak izango ditu.

  Aldaerak aurkeztea onartzen bada, aldaerak eskaintzan dituzten lizitatzaileek haiei dagozkien proposamen ekonomikoak erantsi beharko dituzte.

- "C-2" gutun-azala: Formula bidez edo automatikoki balioetsi daitezkeen irizpideei buruzko agiriak, proposamen ekonomikokoak ez direnak.

Formula bidez kuantifikatu daitekeen irizpide bakarra prezioa bada, gutun-azala bakarra izango da.

9. KONTRATAZIO-MAHAIA. PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA AZTERTZEA.

9.1. ZUGAZTEL, M. P., S. A.ren Kontratazio-Mahaia, kontratu honen ondoreetarako, honelaxe osatuko da: presidentea, Bezeroen arduraduna; idazkaria, Kalitate eta Prestakuntzako arduraduna; eta hiru bokal, honako hauek: kontratuaren arduraduna, ZUGAZTELeko aholkulari juridikoa eta Administrazio Kudeaketaren arduraduna. Mahaiko kideen ardurak beste langile batzuek ordezkatu ahal izango dituzte, lanpostu hutsa, ausentzia edo gaixotasuna izanez gero edo, oro har, arrazoi egiaztatua izanez gero eta argitaratu egingo da mahaiaren osaketa berria.

9.2. Enpresa lizitatzaileen jarduteko gaitasunari eta kaudimenari buruzko dokumentazioa aztertuko du Kontratazio-Mahaiak ("A gutun-azala). Enpresa horiei jakinaraziko zaie aurkeztutako dokumentazioa zuzendu edo osatu behar dutela, bidezkoa denean, eta horretarako hiru (3) egun balioduneko epea emango zaie, jakinarazpen egunaren biharamunetik aurrera.

9.3. Ondoren, zehaztu egingo du ea lizitatzaileek euren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa edo profesionala edota dagokien sailkapena frogatu duten, eta beren-beregi ebatziko du onartuei, baztertuei eta baztertzeko arrazoiei buruz. Dena dela, bai aipatutako zerbitzuburuak bai kontratazio organoak enpresaburuei argibideak eskatu ahal izango dizkiete aurkeztutako ziurtagiri eta

dokumentuei buruz, eta dokumentu osagarriak ere eskatu ahal izango dizkiete. Bost (5) egun balioduneko epea emango die eskatutakoa aurkezteko.

9.4. Eskaintzak jendaurrean irekitzea

Jarduketa horiek egin eta gero, Kontratazio-Mahaiak, jendaurreko ekitaldian, proposamen ekonomikoak irekiko ditu. Kontratatzailearen Profilean iragarriko da zein egunetan eta ordutan izango den ekitaldi hori.

9.5.1 Jendaurreko irekiera ekitaldian Kontratazio-Mahaiko presidenteak aditzera emango du lizitatzaileek aurkeztutako dokumentuen kalifikazioaren emaitza, zeintzuk proposamen onartu eta zeintzuk baztertu diren eta zergatik, eta hori guztia lizitatzaileei jakinaraziko zaie. Jarraian, automatikoki kuantifikatu ezin diren irizpideen arabera eskaintzei emandako puntuazioak irakurriko dira. Ondoren proposamen ekonomikoak ireki eta irakurriko dira; eta bi (2) egun balioduneko epea emango da, ekitaldiaren egunaren biharamunetik hasita, bertaratutakoek, idatziz, ekitaldi horren gainean egokitzat jotzen dutena adieraz dezaten.

9.5.2 Proposamen ekonomikoak ireki eta irakurri ostean, aztertu egingo dira, lizitatzaile bakoitzaren balio-judizioa duten irizpideak baloratzeko egindako txostenarekin batera.

9.5. Aurreko atalean ezarritakoari dagokionez, lizitatzaileek aurkeztutako dokumentazioaren akats eta hutsune mota hau soilik izango da zuzengarria: dokumentazioa aurkeztu zenean jada betetzen ziren baldintzak frogatu gabe egotea.

9.6. Bestelako akats eta hutsuneak (hau da, eskatzen ziren baldintzak ez betetzea proposamena aurkeztu zen unean) zuzendu ezinezkoak izango dira eta, beraz, horrelako akatsak dituzten proposamenak besterik gabe atzera botako ditu kontratazio-mahaiak.

9.7. Halaber, zuzen daitekeen akats bat zuzendu ezinezkoa bihurtuko da baldin eta akats hori egin duen lizitatzaileak ez badu zuzentzen horretarako ezarri dioten epean.

9.8. Lizitazioaren oinarri-aurrekontua gainditzen duten proposamenak automatikoki baztertuko dira.

9.9. Eskaintza aukeratzeko oinarrizko irizpideak.

Lehiaketa hutsik gelditu dela adierazi ezik, ZUGAZTEL, M.P., S.A.k ahalmena izango du kontratua kalitate-prezio erlaziorik onena duen proposamenari adjudikatzeko, AZALEKO "O" ATALEAN ezarritako balorazio-irizpideei jarraituta.

Beherapen ausartegia hautemateari dagokionez, AZALEKO "O" ATALEAN eta SPKLk 149. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoa kontuan hartuko da.

Bi lizitatzaileren edo gehiagoren arteko berdinketa gertatzen bada, adjudikazioaren oinarri diren irizpide objektiboen ikuspuntutik, lehentasuna emango zaio gaitasun teknikoa frogatzeko orduan bere plantillan gutxienez ehuneko 2 langile desgaitu izan dituen enpresak aurkeztutako proposamenari.

9.10. Kontratazio-mahaiaren adjudikazio-proposamenak ez dio inolako eskubiderik sortuko proposatutako enpresaburuari, eta enpresaburu horrek ez du ZUGAZTEL, M. P., S.A.rekiko eskubiderik bereganatuko harik eta kontratazio organoaren erabakiaren bidez kontratua berari adjudikatu arte.

9.11. SPKLren 150. artikuluan ezarritakoaren arabera, adjudikazio-proposamenaren edukiak ez du kontratazio organoa lotetsiko eta organo hori adjudikazio-proposamenetik aldendu ahal izango da, baina bere erabakia behar bezala arrazoitu beharko du.

9.12. Baldin eta, adjudikazioaren aurretik, ZUGAZTEL, M. P., S.A.ko kontratazio organoak kontratua egiteari uko egiten badio edo prozeduran atzera egiten badu, horretarako ebazpen arrazoitua lizitatzaileei jakinarazten dienean, lizitazio gastuengatik zenbateko konpentsazioa ordaindu behar zaien adieraziko du. Konpentsazio hori inoiz ez da izango hirurehun (300) eurotik gorakoa lizitatzaile bakoitzeko.

9.13. Kalitate-prezio erlaziorik onena duen eskaintza aukeratzea.

9.13.1. Kontratazio organoak kontratua adjudikatuko dio kalitate-prezio erlaziorik onena duen eskaintza, oro har, aurkezten duen lizitatzaileari, AZALEKO “O” ATALEAN ezarritako irizpideak aplikatuta; edo bestela lizitazioa huts deklaratuko du, ez badago adjudikazio-irizpideen arabera onartzeko moduko proposamen bakar bat ere.

9.13.2. Baldin eta, eskaintza oso baxuei buruz aurreikusitakoarekin bat etorriz, eta ukitutako lizitatzaileak egindako justifikazioa aztertu eta gero, kontratazio organoak irizten badio haren eskaintza ezingo dela bete balio anormalak edo neurriz kanpokoak jarri izanaren ondorioz, orduan kontratazio organoak erabakiko du kalitate-prezio erlaziorik onena duen proposamenari ematea adjudikazioa, betiere proposamen hori ZUGAZTEL, M. P., S.A.k nahi duen moduan bete ahal izango dela eta ez dela anormala edo neurriz kanpokoa uste badu.

9.13.3. Kontratua bi (2) hilabeteko epean adjudikatuko da, proposamenak aurkezteko ezarritako epea amaitzen den egunetik bertatik hasita. Kontratazio organoak

epe hori luzatu ahal izango du, hamabost (15) egun natural gehituta, eskaintzetan balio ezohikoak edo neurriz kanpokoak jarri direla ikusiz gero.

9.13.4. Kontratua adjudikatu aurretik, kontratazio organoak kalitate-prezio erlaziorik onena duen eskaintza aurkeztu duen enpresaburuarengana joko du, eta eskatuko dio hurrengo atalaren arabera beharrezkoa den dokumentazioa aurkez dezala, kontratua berari adjudikatzeko.

9.14. Agiriak aurkeztea

Kalitate-prezio erlaziorik onena duen eskaintza aurkeztu duen lizitatzaileak honako agiriak aurkeztu beharko ditu, eskatu eta, gehienez, **hamar (10) egun balioduneko epean**, inguruabar hau jakinarazten denetik zenbatzen hasita:

- Dokumentazio orokorrari dagokionez, Kontratisten Erregistroan inskribatuta dauden lizitatzaileek Erregistroaren arduradunak egindako ziurtagiriaren kopia baino ez dute aurkeztu behar, erantzukizunpeko adierazpen batekin batera, Erregistroan aurkeztutako datuak baliozkoak eta indarrean daudela adierazten duena. Kontratisten Erregistroa ekainaren 21eko 59/94 Foru Dekretuak araututa dago, Bizkaiko Lurralde Historikoko Kontratisten Erregistroa, Eusko Jaurlaritzako Lizitatzaileen Erregistro Ofiziala edo Estatutako Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofiziala ezarri eta arautzen dituena.
- Dagokion erregistroan inskribatuta ez daudenek honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte:
  - Proposamena aurkezten duenaren NAN edo hura ordezkatzen duen dokumentu fede-emailea, eta proposamenak beste batzuen izenean aurkeztu edo sinatzen dituztenek ahalorde askietsia aurkeztuko dute.
  - Pertsona juridiko diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, eraketa edo moldaketa eskritura aurkeztuko da, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan inskribatua, betiere betekizun hori aplikagarria den merkataritza arloko legeriarekin bat eskatu behar bada. Bestela, eraketa eskritura, estatutu edo fundazioa eratzeko egintza bidez egiaztatuko da jarduteko gaitasuna. Bertan jasoko dira jarduera arautzeko arauak, dagokion Erregistro Ofizialean inskribatuta, hala badagokio.
  - Kontratatzeko ahalmenak dituen ahalordea, aurreko atalean xedatutakoarekin bat, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko erari dagokionez.
  - Foru Ogasunak (edo ogasunek) edota, behar denean, Zerga Administrazioko Estatuko Agentziak edota toki erakunde eskudunak luzatutako ziurtagiri positiboa, zerga-betebeharrak egunean dituela frogatzen duena; aribideko ekitaldiko altaren frogagiria edo Jarduera

Ekonomikoen gaineko Zergaren azken ordainagiria; zerga horren matrikulan baja emanda ez dagoelako erantzukizunpeko aitorpena.

ZUGAZTEL, M. P., S.A.k hala xedatzen badu, agiri horien ordez betiere enpresa lizitatzaile edota adjudikaziodunek baimena emanez gero arloan arloko zerga administrazioek lagatako informazioa erabili ahal izango da.

- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela frogatzen duen ziurtagiri positiboa edo, bestela, mutuako alta.

- Plantillan desgaitasuna duten langileak izatera behartuta dauden enpresei buruzko ziurtagiria, plantillaren 100eko 2ko portzentajean, plantillak 50 langile edo gehiago baditu.
- Lizitatzailearen kaudimen teknikoari eta finantzarioari eta teknikoari edo profesionalari dagokionez, egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko dira, AZALEKO "N" ATALEAN ezarrita dagoen bezala.
- Behin betiko bermea egin izanaren frogagiria, AZALEKO "H" ATALEAN horrela aurreikusi bada. SPKLren 109. artikuluan ezarritako moduan egingo da bermea.

Eskatutakoa ez bada behar bezala betetzen aipatu epean, lizitatzaileak bere eskaintza atzera bota duela ulertuko da, eta orduan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenaren arabera.

9.15. Adjudikazioa

ZUGAZTEL, M. P., S.A.ko kontratazio-organoak erabakiko du adjudikazioa, ebazpen arrazoitua emanez. Ebazpen hori lizitatzaileei jakinaraziko zaie eta ZUGAZTEL, M. P., S.A.ren kontratatzaile-profilean argitaratuko da.

Adjudikazioaren jakinarazpena hartzaileak jaso duela egiaztatzeko aukera ematen duen lizitazio elektronikoko plataforma erabilita egingo da. Bereziki, adjudikazioa posta elektronikoz jakinarazi ahal izango da, lizitatzaile edo hautagaiek euren proposamenak aurkezterakoan emandako helbidean.

Kontratua adjudikatu eta gero, proposamenekin batera aurkeztutako agiriak interesdunen eskura jarriko dira. Interesdunek ez badute hartzen euren dokumentazioa adjudikazioa jakinarazi eta hurrengo hiru (3) hilabeteetan, ZUGAZTEL, M. P., S.A.k ez du dokumentazio hori gorde beharrik izango, eta suntsitu ahal izango du.

9.16. Behin betiko bermea.

Kalitate-prezio erlaziorik onena duen eskaintza aurkeztu duen enpresariak derrigorrean jarri behar du behin betiko bermea, Kontratazio-Organoaren

eskura egongo dena, kontratuaren xedea behar bezala gauzatze aldera. Abal gisa jarriko du, AZALEKO "H" ATALEAN ezarritakoarekin bat.

Behin betiko zenbatekoa da kontratuaren adjudikazioaren zenbatekoaren 100eko 5, BEZ kanpo.

Behin betiko bermea jartzeko SPKLren 107. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoari jarraituko zaio.

Bermea ez da itzuliko edo ezeztatuko plegu honen azalean edo, bestela, kontratuan, ezarritako berme-aldia bukatu arte, eta dagokion kontratua zuzen bete arte, edo, kontratista errudun ez dela, kontratuaren suntsiarazpena adierazi arte. Izapidetzea SKPLren 111. artikuluari jarraituz egingo da.

Kontratua aldatzearen ondorioz prezioa aldatuz gero, bermea birdoitu egingo da egutegiko hamabost (15) eguneko epean, enpresari kontratistari aldaketa-akordioa jakinarazten zaion datatik hasita. Aldaketaren ondorioz izan den kontratuaren prezioarekiko proportzioa izango du. Hala badagokio, kalte-ordainak gauzatzen diren datatik hasita, adjudikaziodunak bermea birjarri edo gehitu beharko du dagokion beste, bestela, kontratua suntsitzeko arrazoia izango da.

1.1. Aseguruak.

Kontratistak erantzukizun zibileko asegurua sinatu beharko du zerbitzurako oro har, erantzukizun orokorra, ugazabaren erantzukizuna eta burututako lanengatiko erantzukizuna bilduko dituena. Aseguratua kontratista izango da eta azpikontratista ere bai, egonez gero. Aseguruaren zenbatekoak erreserbarik gabe estali behar ditu zerbitzua egiten eta kontratuko betebeharrak betetzen ari diren bitartean gainontzekoei zuzenean edo zeharka eragin ahal zaizkien kalteak, AZALEKO "H" ATALEAN ezarritakoa.

Plegu honetako azalean zenbatekorik ageri ez bada, lanaren gauzatzea aseguratzeko behar adinako zenbatekoa duen asegurua sinatuko da. Betiere zenbateko hori gutxienekoa eta zatiezina izango da, baina zerbitzu osoarengatik gainontzekoekin sor litezkeen gorabeheretara hedatuko da ondore berberekin, kontratistaren erantzukizunari, indarrean dauden arauei jarraituz eta zuzenbidezko jarduketen bitartez, benetan eskatu ahal zaizkion neurrian.

Aseguru poliza horrek ez du zertan izan kontraturako berariaz egindakoa, aitzitik, nahikoa izango da enpresaburuak bere jarduera orokorrerako kontrataturik eduki dezakeen erantzukizun zibileko aseguruaren poliza.

Adjudikaziodunak poliza horiek sinatu izana egiaztatu beharko du Kontratazio-Organoaren aurrean kontratua formalizatu aurretik.

Edonola ere, adjudikaziodunak kontratuaren indarraldi osoan gorde beharko du

aseguru hori.

10. KONTRATUA FORMALIZATZEA ETA HOBETZEA.

10.1. Adjudikazio-akordioa errekurtso bereziaren bidez aurkaratuz gero, AZALEKO "W" ATALA, kontratua ez da formalizatuko 15 egun baliodun igaro arte, kontratugilearen profilean adjudikazioa argitaratu eta lizitatzaileei jakinarazten zaien hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Errekurtso bereziaren bidez aurkaratu ezin bada, kontratua formalizatuko da, gehienez, 15 egun baliodunetan, adjudikatzen denetik zenbatzen hasita.

10.2. ZUGAZTEL, M. P., S.A.k kontratua formalizatu aurretik eskaintzaren edukia egiaztatzeko ahalmena izango du eta kontratua formalizatzen denean bakarrik egongo da behartuta, eta egintza horren bidez kontratua burutzen da.

10.3. Adjudikaziodunak egindako proposamena ere kontratu-agiria izango da, baina adjudikaziodunak ez ditu berriro sinatu beharko hura osatzen duten dokumentuak.

10.4. ZUGAZTEL, M. P., S.A.k adjudikaziodunari kontratua bost (5) eguneko epean formalizatzeko eskatuko dio, horretarako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, betiere igaro bada SPKLren 50. artikuluan ezarritako epea eta kontratua formalizatzea etetea dakarren errekurtsorik jarri ez bada.

10.5. Kontratua Enpresa-Talde bati adjudikatuz gero, horiek taldea eratu dutela egiaztatu beharko dute, eskritura publikoan, betiere kontratua formalizatzeko emandako epearen barruan. Taldearen IFZ ere aurkeztu beharko dut.

10.6. Kontratu hau dokumentu pribatu batean formalizatuko da, lizitazioaren baldintzei hertsiki lotuta. Nolanahi ere, alderdiek eskritura publikoa egiteko eska dezakete. Eskritura publiko horren gastu guztiak eskatzen duenaren kontura izango dira.

10.7. ZUGAZTEL, M. P., S.A.k bere kontratatzaile-profilean argitara emango du kontratuaren formalizazioaren iragarkia, adjudikazioaren iragarkian jarritako datu berak emango dituena.

10.8. Baldin eta, kontratistari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik, kontratua ezin bada adierazitako epean formalizatu, kontratua suntsiarazi egingo da eta eragindako kalte eta galerengatiko kalte-ordaina eskatuko da. Kontratua hurrengo lizitatzaileei adjudikatu ahal izango zaie, haien eskaintzen hurrenkeraren arabera, adjudikaziodun berriaren adostasuna jasoz gero.

10.9. Adjudikaziodunak ordainduko ditu kontratua formalizatzeak dakartzan gastu eta zerga guztiak.

10.10. Adjudikaziodunak, kontratua betetzen ari dela, kontratuaren xedearekin zerikusia duten eta publikoak edo jakinak ez diren datu eta aurrekariak jakiten baditu, isilpean gorde beharko ditu.

11. ALDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

11.1. Kontratistari ordaintzea.

11.1.1 Kontratistak eskubidea izango du egindako prestazioa ordain diezaioten, SPKLren 198. eta 199. artikuluetan eta kontratuan ezarritako moduan eta hitzartutako prezioaren arabera.

11.1.2 Plegu honen AZALEKO "R" ATALEAN zehazten da prezioa ordaintzeko modalitatea; hilero ordaindu ahal izango da, hau da, urte bakoitzerako aurreikusitako prezioaren hamabirena hilean, urtebeteko edo urte anitzeko zerbitzuak ematen badira, edo bestela, kontratatutako prestazioak emateko faseen gauzatzea kontuan hartuta, aholkularitza edo laguntza teknikoa bada.

11.1.3 Adjudikaziodunak eskubidea du prestatzeko eragiketengatik diru-kopuru bat jasotzeko, gehienez, kontratuaren zenbatekoaren % 20, SPKLEOren 201-2 artikuluan jasotako betekizunekin bat. Aurrerakin hori ordaintzeko, ezinbestekoa da kontratua formalizatuta egotea.

11.1.4 Egindako lanen zenbatekoa proiektuaren zuzendariaren ikus-onespenaren bidez egiaztatuko da, AZALEKO "R" ATALEAN ezarritako maiztasunarekin. Behin ziurtagiri hori emanda, kontratistak bere faktura igorri ahal izango du eta ZUGAZTEL, M. P., S.A.k hogeita hamar (30) egun naturaleko epea izango du ordaintzeko, faktura jasotzen duen egunetik hasita, salbu eta fakturan errore edo akatsen bat dagoenean; horrelakoetan ZUGAZTEL, M. P., S.A.k, faktura jasotzen duenetik hogei (20) egun igaro baino lehen, jakitun jarri beharko du kontratista, akatsa zuzen dezan.

11.1.5 Lanak kontratuko epean edo epeetan baino arinago burutu ahal izango ditu kontratistak. Hala ere, urte bakoitzean, edozein izanda ere burututako lanaren edo emandako ziurtagirien zenbatekoa, plegu honen hasieran dagoen AZALEKO "C" ATALEAN ageri den urtekoa jaso ahal izango du gehienez, adjudikazio koefizientea aplikatuta.

11.2. Kontratistaren betebeharrak.

11.2.1. Lan eta gizarte betebeharrak.

Kontratista derrigortuta dago lan, Gizarte Segurantza eta lan osasunaren arloan indarrean dauden legezko xedapenak eta arauak betetzera.

Kontratistak, adjudikatutako lana egingo duten langileei dagokienez, zehatz-mehatz bete beharko ditu lan arloan indarrean dauden arauak, Gizarte Segurantzari buruzkoak, desgaitasuna dutenak gizarteratzeari buruzkoak eta laneko arriskuetarako aurreneurriei buruzkoak, bai eta gizarte prestakuntzaren gainekoak ere. Konpromisotzat hartuko du, gainera, azpikontratatzen duen enpresak –halakorik egiten badu– lanari buruz indarrean dagoen legeria beteko duela bere langileei dagokienez. Kontratistak nahitaez zaindu behar du bere enpresan eta azpikontratatzen duen enpresan –halakorik egiten badu– egindako lana baldintza duinetan garatzen dela. Langileei dagokien sektoreko hitzarmena aplikatuko zaie, eta batez ere langileen subrogazioari dagokionez.

11.2.2. Gizarte eta ingurmen arloetan betetzeko baldintza bereziak.

Hauek dira gauzatzeko baldintza bereziak:

1.- Araudia betetzea.- Kontratistak, kontratua gauzatzean, gizarte, lan eta ingurumen arloetan aplikagarriak diren obligazioak beteko ditu, Europar Batasuneko Zuzenbidean, Estatuko Zuzenbidean, lan-hitzarmenetan ezarrita daudenak, edo Estatua lotesten duten ingurumen, gizarte eta lan arloetako nazioarteko Zuzenbidearen xedapenek ezarritakoak. Halaber, eskaintza prestatzean, araudi hori aplikatzeko erantzukizunpeko adierazpena egingo du, 3. ERANSKINeko ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAren arabera.

2.- Oinarrizko lan eskubideak eta errespetatzeko betebeharra eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) funtsezko konbentzioak betetzea.- Kontratistak bere gain hartzen du oinarrizko lan eskubideak errespetatzeko betebeharra produkzio-katean eta LANEren funtsezko konbentzioak betetzeko, eta bereziki honako hauek, 3. ERANSKINeko ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAren arabera.

29. eta 105. konbentzioak, bortxazko lana ezabatzeari buruzkoak.

87. eta 98. konbentzioak, askatasun sindikala, elkartzeko askatasuna eta negoziazio kolektiboari buruzkoak.

100. konbentzioa, balio bereko lan batengatik gizonezkoek eta emakumezkoek ordainsari berdina izateari buruzkoa.

111. konbentzioa, enplegua izateko eta lan baldintzetan baztertua ez izateari buruzkoa, arraza, kolore, sexu, erlijio, iritzi publiko edo jatorri sozialeko arrazoiak tarteko.

138. konbentzioa, haur esplotazioa eta lana ezabatzeari buruzkoa.

182. konbentzioa, haur lan erarik txarrenak debekatu eta hori ezabatzeko berehalako ekintzari buruzkoa.

Betebehar hau ezinbestekoa da eta, SPKLren 211.f artikuluan ezarritakoarekin bat, ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoi izan daiteke.

3.- Desgaitasuna duten langileak legez eduki beharra.-. Kontratistak, kontratuaren indarraldian, beste betebehar batzuen artean, desgaitasuna duten langileak eduki beharko ditu, enpresako plantillaren 100eko 2 gutxienez, plantillan 50 langile edo gehiago badaude. Hori guztia desgaitasun duten pertsonen eskubideei buruz eta gizarteratzeko Lege Orokorraren Testu Bateginaren 42. artikuluarekin bat, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak onetsia, edo bestela apirilaren 8ko 364/2005 Errege Dekretuak erregelamenduz garatutako ordezko neurriak hartu beharko ditu. Halaber, konpromisoa hartzen du aipatu obligazioa betetzeko kontratuaren arduradunaren aurrean, hark eskatuta, kontratuaren indarraldian eta uneoro edo, edonola ere, azken faktura bidali aurretik (3. ERANSKINeko ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA).

4.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko legezko betebeharra - Kontratistak bere gain hartzen du, kontratuaren indarraldian, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko betebeharra, Euskadiko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoarekin bat. Halaber, konpromisoa hartzen du Berdintasun Plana egiaztatzeko, legez behartuta egonez gero (250 langiletik gora). Kontratuaren arduradunaren aurrean egiaztatuko du, hark eskatuta, kontratuaren indarraldian eta uneoro edo, edonola ere, azken faktura bidali aurretik (3. ERANSKINeko ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA).

Kontratua gauzatzean, enpresa kontratistak edo azpikontratistak emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatuko du tratuan, enplegua lortzeko aukeran, sailkapen profesionalean, sustapenean, iraunkortasunean, prestakuntzan, iraungitzean, ordainsarietan, lanaren kalitatean eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupenean eta antolaketan.

Kontratua gauzatzeko langile berriak kontratatu behar badira eta enpresa kontratistak kontratuari atxikitako langileen artean emakumeen ordezkaritza desorekatua badu, kontratazio berrien % 50 emakumeak izango dira. Plantilla desorekatua dela ulertuko da, baldin eta plantillako ehunetik 40 baino gutxiago emakumeak badira.

5.- Estereotipo sexistak saihesteko betebeharra.- Kontratua gauzatzen ari den bitartean, dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztian

enpresa edo erakunde adjudikaziodunak, baita azpikontratistak ere, hala badagokio, hizkuntzaren erabilera ez-sexista erabili beharko du, emakumeen edozein irudi diskriminatzaile edo estereotipo sexista saihestu beharko du, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzukidetasunaren eta genero-rol eta -identitateen aniztasunaren balioak dituen irudia sustatu beharko du.

Aipatu dokumentazio guztia, kontratazio-organoak izendatu ostean, kontratuaren arduradunak aztertu beharko du, erabili eta hedatu baino lehen.

6.- Prestakuntza plana izateko betebeharra. - Kontratistak prestakuntza plana prestatuko du, kontratua gauzatzen arituko diren pertsonen okupazioa eta egokitzeko gaitasuna hobetuko dituena, eta konpromisoa hartzen du aipatu obligazioa betetzeko kontratuaren arduradunaren aurrean, hark eskatuta, kontratuaren indarraldian eta uneoro edo, edonola ere, azken faktura bidali aurretik.

7.- Kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa. Lizitatzaileek, adjudikaziodun suertatuz gero, kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa adieraziko dute. Era berean, eta behin kontratua adjudikatuta, kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileen lan baldintzei buruzko informazio guztia eman beharko dute, eskatzen zaien guztietan (3. ERANSKINeko ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA).

8.- Hitzarmenean jasotako ordainsaria ordaintzeko betebeharra. - Kontratistak, kontratua gauzatzean, sektoreko hitzarmen kolektiboan jasotako ordainsaria ordaindu beharko du, langileari dagokion kategoria profesionala kontuan hartuta, eta inola ere ez da izango hitzarmenean adierazikotik beherakoa (3. ERANSKINeko ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA).

9.- Subrogazioa egiteko betebeharra. - Legezko arau batek, hitzarmen kolektibo batek edo efikazia orokorreko negoziazio kolektiboko akordio batek adjudikaziodunari lan harreman batzuetan enplegu-emaile subrogazioa egiteko betebeharra inposatuz gero, AZALEKO "X" ATALA, honako klausula hauek arautuko dute, SPKLren 130. artikuluan jasotakoari jarraituz:

a) Ohartarazten da kontratuaren xede den jarduera egiten ari diren langile guztien lan kontratuen subrogazioaren mende dagoela kontratazioa –betebeharra arautzen duen arauak ezarritako gutxieneko antzinatasunarekin– nahiz eta beste kontrata batekoak izan, eta enpresa

berria dagoela subrogatuta lan eskubide eta betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan.

b) Adjudikazioduna enplegu-emaile gisa subrogatzearen lan kostuak ebaluatze aldera, kontratu honen subrogazioan dauden langileen kontratuen baldintzei buruzko informazioa dagokion eranskinean adierazita dago.

Informazioa prestatu da adjudikatu beharreko kontratuaren xede den prestazioa egiten ari den enpresak emandako informazioarekin. Langile horien enplegu-emailea da eNpresa.

c) Enpresa adjudikaziodunak hirugarrenekin kontratatuz gero kontratua partzialki egitea, kontratista nagusiak bere gain hartuko du kontratua gauzatzeko erantzukizun osoa ZUGAZTEL, M. P., S.A.ren aurrean, administrazio-klausulen pleguei eta kontratuan adierazitakoei zorrotz jarraituz. Gizarte eta lan arloetako obligazioak ere bete beharko ditu.

Subrogatzeko betebeharra dagoenean, adjudikaziodunak, zerbitzuak ematen hasi baino lehen, zerbitzu horietan arituko diren langileen zerrenda aurkeztuko du, eskaintzan jasotako lanpostuen zerrendarekin bat datorrena. Horrela, kontratuaren arduradunak identifikatu ahal izango ditu, uneoro, planifikatutako lanak egiten dituzten pertsonak. Halaber, enpresa kontratistak ezingo ditu ordezkatu eskaintzan adierazitako langileak, ezta beste kontrataziorik egin ere, ZUGAZTEL, M. P., S.A.k berariazko baimena eman ezean.

d) Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 44. artikuluan ezarritakoa aplikatzearen kalterik gabe, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartua, subrogatuta dauden langileei ordaindu ez zaizkien soldatak ordaindu beharko ditu kontratistak, baita sortutako Gizarte Segurantzako kotizazioak ere, nahiz eta kontratua suntsiarazi eta langileak beste kontratista batek subrogatu. Azken horrek ez du, inola ere, obligazio hau betzeko. Horrelakoetan, ZUGAZTEL, M. P., S.A.k, behin egiaztatuta soldata horiek ez direla ordaindu, zor diren kopuruak atxikiko dizkio kontratistari soldatak ordainduko direla bermatzeko, eta ez du behin betiko bermea itzuliko soldatak ordaindu direla egiaztatu arte.

10.- Hizkuntz arloko betebeherrak. - ZUGAZTEL, M. P., S.A.k egindako kontratuak hizkuntz ofizialtasunaren araubideari lotuta daude, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan eta euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1882 Euskal Legean, eta arlo honi buruzko gainerako autonomi eta foru arauetan ezarritakoa.

11.- Enpleguari eta plantillari eusteko betebeharra.

SPKLren 76.2 eta 3 artikuluarekin eta 202. artikuluarekin bat, enpresa lizitatzaileak konpromisoa hartzen du, adjudikaziodun izanez gero, gutxieneko plantillari eusteko, zehaztapen teknikoen pleguan kontratua gauzatzeko ezarrita dagoen bezala. Helburu horretarako, lizitatzaileek 3. ERANSKINeko erantzukizunpeko adierazpenaren bidez adierazi beharko dute zenbat langile erabiliko dituzten kontratua gauzatzeko lanetan eta horien lanaldia, urteko lan-orduetan adierazita. Plantilla homogeneoa ez bada kontratuan zehar, egutegia aurkeztu beharko da, eta zehatz-mehatz adierazi pertsona kopurua, bakoitzaren urteko lanaldia lan-orduetan, baita kontratuaren hasi eta buka-orduak ere.

Halaber, Gizarte Segurantzan alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiriaren kopia aurkeztuko du, lan kontratu mugagabea duten langileen portzentajea egiaztatzeko (gutxienez, kontratuari esleitutako langileen % 50 izan behar da), eta konpromisoa hartzen du obligazio hori betetzeko kontratuaren arduradunaren aurrean, hark eskatuta, kontratuaren indarraldian eta uneoro edo, edonola ere, azken faktura bidali aurretik.

12.- Paperaren erabilera murrizteko betebeharra eta, hala badagokio, paper ekoziurtatua erabiltzea.

Europar Batasunaren Etiketa Ekologikoa edo Zisne Nordikoaren ziurtagiria duen papera erabiliko da % 100ean. Paperaren zuritasun-graduari dagokionez, gradu gutxien duena aukeratuko da eta, bereziki, batere klororik ez duten paperak (TCF) klororik gabeko oinarrizkoen aldean (ECF).

Birziklatu gabeko papera Din A4 edo Din A3 formatuetan inprimatu ezin diren planoetarako edo merkatuan birziklatzeko aukerarik ez duten paer motetarako baino ez da erabiliko. Kasu horietan, kudeaketa jasangarrria eta/edo birziklatua duten basoetako zur-zuntzaren % 20 izango du gutxienez paperak.

Gainera, kontratua gauzatzearen ondorioz sortzen den dokumentazio guztia (txostenak, gorabeherak, etab...) euskarri informatikoan egin eta banatuko da eta ahalik eta gutxien inprimatu.

Hori egin ezin bada:

Inpresio kopurua murriztu egingo da, ezinbestekoak baino ez dira inprimatuko.

Alde bietatik inprimatuko da, eta zuri-beltzean. Kolorekoa erabiliko da zuri-beltzean interpretatu ezin direnetan.

Ahalik eta gehien murriztuko da azalen (hala kartoizkoak nola plastikozkoak) edo beste koadernaketa-sistema batzuen erabilera

(tututxoak, espiralak, etab.). Koadernaketa behar izanez gero, paperean edo kartoian egingo da bereziki, bestelako materalik sartu gabe.

Eta konpromisoa hartzen du aipatu obligazioa betetzeko kontratuaren arduradunaren aurrean, hark eskatuta, kontratuaren indarraldian eta uneoro edo, edonola ere, azken faktura bidali aurretik.

11.2.2.1. Gauzatzeko baldintza berezien betetze-mailaren jarraipena egitea.

ZUGAZTELen aldetik. - Kontratuaren arduradunak gauzatzeko baldintza berezien betetze-mailaren jarraipena egingo du, eta kontratistari eskatuko dio, kontratua gauzatzen den uneoro, dagokion dokumentazioa edo egoki deritzon bete edozein agiri, kontratua gauzatzen dela jarraipena egiteko dituen kontrol eta ebaluzio ahalmenak baliatuz. Gainera, jarraipen bilerak egitea edo ebaluatzeko aldizkako txostenak eska ditzake. Era berean, kontratuaren arduradunak kontratazio-organoari jakinaraziko dio kontratuan aurreikusita dauden obligazioetariko bat bete ez bada, eta, hala badagokio, zigorrak ezartzeko edo kontratua suntsiarazteko prozedurari ekiteko proposatuko du.

Kontratistaren aldetik. Kontratistak bere gain hartzen du kontratuaren arduradunari informazioa helarazteko, hala eskatzen zaionean, plegu honetan jasotako gauzatzeko baldintza bereziak eta 3. ERANSKINeko erantzukizunpeko adierazpenean hartutako konpromisoak betetzen direla egiaztatzeko.

11.2.2.2. Gauzatzeko baldintza bereziak ez betetzearen ondorioak.

Kontratazio-organoak zigorrak ezarri ahal izango dizkio enpresa kontratistari, gauzatzeko baldintza bereziak betetzen ez baditu.

Gauzatzeko baldintza bereziak ez betetzea falta arina izango da eta zigorraren zenbatekoa, gehienez, kontratuaren prezioaren % 4ra artekoa izango da, salbu eta, arrazoituta, kontratazio-organoak uste badu ez betetzea larria edo oso larria dela. Horrelakoetan, gehienez, % 7ra artekoa izango da, lehen kasuan, eta % 10era artekoa bigarrenean. Ez betetzea behin eta berriz gertatuz gero, larritasuna balioetsiko da.

Plegu honen AZALEKO "P" ATALEAN jasotako gauzatzeko baldintza bereziak betetzen ez badira, kontratazio-organoak atal horretan jasotako zigorrak ezarri ahal izango ditu. Aipatu atalean zigorrik jasota ez badago, aurreko paragrafoan xedatutakoari jarraituko zaio eta kontratazio-organoak bertan jasota dauden zigorrak ezarri ahal izango ditu.

Zigorrak honela ezarriko dira: kontratistari ordainketa oso edo partzial gisa ordaindu beharreko kopururuetatik kenduz, edo, hala badagokio, eratu den bermetik hartuz, ordainketatik kendu ezin bada.

11.2.3. Enpresa kontratista-adjudikazioduneko langileen arau bereziak.

1.- Kontratu hau gauzatuko duten langileei dagokienez, enpresaburu ororen berezko zuzendaritza ahalmena modu errealean, eraginkorrean eta jarraituan baliatzeko betebeharra hartzen du kontratistak. Zehazki esateko, bere gain hartuko ditu negoziazioa eta soldatak ordaintzea, baimenak, lizentziak eta oporrak ematea, ordezkapenak, lan arriskuen prebentzioaren arloko legezko betebeharrak, diziplina zigorrak ezartzea (beharrezkoa denean), Gizarte Segurantza arloko betebeharrak, kotizazioak eta prestazioak ordaintzea barne, baita enplegatzaile eta enplegatuaren arteko kontratu harremanetik erator daitekeen eskubide eta betebehar oro ere.

2.- Kontratistak bere bulegoetan edo instalazioetan gauzatu beharko du kontratua; hala ere, eta salbuespen gisa, administrazio bulegoetan lan egiteko baimena eman dakioke. Kasu horretan, posible bada, enpresa kontratistako langileak langile publikoengandik fisikoki banatuta dauden espazioetan kokatuko dira. Kontratistak zaindu behar du betebehar hau betetzen dela.

3.- Kontratistak koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatu beharko du gutxienez, eta bere plantillan sartu. Honakoak izango dira koordinatzaile tekniko edo arduradun horren betebeharrak:

- Enpresa kontratista-adjudikazioduneko langileek enpresa kontratugileari jakinarazi beharko diote edozein komunikazio igortzea eta transmititzea, kontratua gauzatzeari dagokionez.
- Enpresa kontratista-adjudikaziodunaren lan arauak betetzea kontrolatzea, bereziki langileak lantokian bertaratzeari eta oporrak izateari dagokienez, kontratatutako zerbitzua ematea aldatu ez dadin.

11.2.4. Lan arriskuen prebentzioaren arloko betebeharrak

Adjudikatutako lanean ari diren langileen kontratistak zorrotz beteko du lan arriskuen prebentzioaren arloko araudia, eta enpresa azpikontratistek -hala badagokio- konpromisoa hartzen dute lan arriskuen prebentzioaren arloko legeak betetzeko.

Bereziki, enpresa kontratistak:

1.- Derrigorrezkoak edo beharrezkoak diren lan segurtasun eta osasun arloetako neurriak hartuko ditu, langileen bizitzari, osotasunari eta osasunari eragin diezaieketen arriskuak ahalik eta ondoen prebenitze

aldera. Orobat, indarrean dagoen araudiak ezarritako lan arriskuen prebentzioaren arloko obligazioak beteko ditu eta kontratatutako jarduerari ekin aurretik hurrengo obligazio hauek betetzen dituela egiaztatu beharko du. Horretarako, Plegu honi atxikitako Lan Arriskuen Prebentzioaren Eranskina aurkeztuko dio ZUGAZTEL, M.P., S.A.ri:

a) Indarrean dagoen legeriarekin bat datorren prebentziozko antolamendu-modalitatea hartu izana.

b) Lan arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa sistema orokorrean sartzea lan arriskuen prebentzio plana ezarriz eta aplikatuz, urtarrilaren 17ko 39/1997 EDk onetsitako Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren 2. artikuluari jarraituz.

c) Kontratatutako jarduerari dagokion prebentziozko jardueraren arriskuak ebaluatzea eta plangintza egitea.

d) Ezarritako segurtasun-neurrien betetze-mailaren kontrola ziurtatzea. Horretarako, hala badagokio, Langileen Estatutuan eta Hitzarmen Kolektiboan –besteak beste- jasotako diziplina-neurriak hartuko dira, langile guztien segurtasuna bermatzeko.

e) Arriskuen ebaluazioa dela eta, prebentziozko baliabidea behar duten eginkizunen eta/edo jardueren zerrenda izatea.

f) Kontratua gauzatzen diharduten langile guztiei, propioak nahiz inorenak, enpresak arrisku espezifiko, babesteko neurri eta larrialdi-neurriei buruzko informazioa eman izana, baita, langileen jarduerari eragiten dioten arriskuei buruzko prestakuntza eman izana ere (31/1995 Legearen eta 32/2006 Legearen 18. eta 19. artikuluak eta 1109/2007 Errege Dekretua), Prebentzio Planaren prozedurarekin bat. Bereziki, NBEak erabiltzeari buruzko prestakuntza jaso izana.

g) Beharrezko diren norbera babesteko ekipamenduak eman izanaren egiaztagiria izatea.

h) ZUGAZTEL, M.P., S.A.ri aurkeztea zerbitzuan parte hartuko duten enpresa azpikontratisten eta langile autonomoen zerrenda, honako hauek adierazita: jardueraren hasiera eta bukaera data, azpikontratatutako jarduera eta lanak egingo dituzten pertsonak.

2.- Enpresak azpikontratatzen badu kontratua gauzatzeko zatiren bat, azpikontratei eskatu behar dizkie nagusiari eskatzen zaizkion agiriak eta kopia emango dio ZUGAZTEL, M.P. S.A.ri azpikontratatutako jarduerari ekin baino lehen.

3.- ZUGAZTEL, M.P. S.A.k beharrezko ikusten dituen neurriak hartuko ditu enpresa kontratistak lan arriskuen prebentzioaren arloko baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko.

4.- Kontratistak betetzen ez baditu klausula honetan jasotako obligazioak, ZUGAZTEL, M.P., S.A.k beharrezko ikusten dituen neurriak hartzeko eskatuko du adierazitako obligazioak betetzen direla bermatzeko eta araudian jasota dauden ekintza guztiak erabiltzeko.

Klausula honetan jasotako obligazioak ez betetzeak kontratua suntsiaraztea ekar dezake.

Enpresa kontratistak, prebentzio planarekin bat, zuzendaritza lanak egiteko pertsonak izan behar ditu. Pertsona horiek prestakuntza jaso behar izan dute lan arriskuen prebentzioa jardueretan eta erabakietan sartzeko.

Enpresa kontratistak pertsona bat izendatuko du, enpresako arduraduna izango dena segurtasun eta osasun arloetan. Prestakuntza espezializatua izan behar du prebentzioan eta lan arriskuen prebentzio plana kudeatuko du.

Prebentziozko antolamenduaren bidez, aldizkako berrikusketak egiteko prozedura izatea lan segurtasunean eta osasunean arriskua ekar lezaketen zerbitzuen prestazioan. Horretarako, prebentzio planeko berariazko egiaztatzeko prozeduran ezarritako arauei jarraituko zaie. Prozedura horretan sartu beharko da arriskuen ebaluazioan jasotako babes-neurri kolektiboen aldizkako egiaztatzea, baita NBEen erabilera efektiboa ere.

Kontratua gauzatzean langile etorkinak sartzen direnean, komunikazio efikazeko prozedurak eman beharko dira, prebentzio sistema egokia bermatzeko.

11.2.5. Arkitektura- eta komunikazio-oztopoak ezabatzea desgaitasuna duten pertsonentzat.

Ahal den neurrian, enpresa kontratistak ZUGAZTEL, M.P., S.A.rekin egingo du lan kontratuaren xede diren zerbitzu, ekitaldi edo jardueretan egon daitezkeen arkitektura- eta komunikazio-oztopoak ezabatzeko.

11.2.6. Adjudikaziodunak materialak zaintzeko betebeharra

Bizkaiko Foru Aldundiak material jakin batzuk jartzen baditu, osorik edo partzialki, adjudikaziodunaren zaintzapean gordeko dira, eta azken horrek zaindu eta itzuliko ditu. Eta ondasun horiek zaindu eta galtzeari dagokionez, Kode Zibilean, Merkataritza Kodean eta Zigor Kodean xedatutakoari jarraituko zaio.

11.3. Datu pertsonalak babestea.

11.4.1. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen hogeita bosgarren xedapen gehigarria betez, datu pertsonalen tratamendua dakarten kontratuak formalizatzen direnetik eta, gainera, kontratua formalizatzen duen pertsonak (fisikoa edo juridikoa) (aurrerantzean, kontratista)

datu pertsonalak eskuratzen dituenetik:

- kontratista izango da **tratamenduaren eragilea**, eta datu pertsonalak eskuratu eta/edo tratatu ahal izango ditu
- ZugazteL, M.P., S.A.ren kontura, kontratuaren sustatzailea (aurrerantzean, ZugazteL, M.P., S.A.ren Zuzendaritza Kudeatzailea), **datuen tratamenduaren arduraduna**.

11.4.2. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren — datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (aurrerantzean, DBEO) — 28. artikuluaren eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren (aurrerantzean, DPBEDBLO) 33. artikuluaren arabera. Bi alderdiek datuak babesteko araudia (DBEO eta DBLO) bete behar dutela adierazten duen adierazpena: Araudi hau kontratu-espedienteari eta etorkizuneko kontratuari aplikatu beharreko araubide juridikoa da, eta kontratistak eta Zugaztel, M.P., S.A. enpresaren Zuzendaritza Gerenteak nahitaez bete beharrekoa. Bi aldeek errespetatu eta bete behar dituzte datuak babesteko araudi honetan xedatzen zaizkien betebeharrak eta hizpaketak. Halaber, bi alderdiek nahitaez bete behar dituzte klausula honetan eta gainerako pleguetan datuen babesari buruz ezarritako betebehar eta estipulazio guztiak. Bi aldeentzako datuak babesteko araudiaren mende egotearen adierazpena betearaztearen eta funtsezko betebeharraren baldintza berezia da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211.1 f) artikuluaren ondorioetarako.

11.4.3. Araudian xedatutakoaren arabera, datu horiek eskuratzea ez da datuen komunikaziotzat hartuko, eta kontratistak, tratamenduaren arduradun gisa, Zugaztel, M.P., S.A. enpresaren Zuzendaritza Gerenteak emandako jarraibideak bete beharko ditu, neurri hauek betetzeari kalterik egin gabe:

11.4. Datu pertsonalen tratamendua:

11.5.1. Zugaztel, M.P., S.A.ren Zuzendaritza Gerenteak tratamenduaren arduraduna izatearen ondoriozko erantzukizunak eta betebeharrak ditu, eta kontratua formalizatzen duen pertsonak tratamenduaren arduraduna izatearen ondoriozko erantzukizunak eta betebeharrak ditu.

Tratamenduaren arduradunari dagokio:

a) "Datu pertsonalen tratamendua" eranskinean zehazten diren datu pertsonalen tratamendurako jarduerak baimentzea.

b) Aldez aurretik zaintzea, tratamenduan zehar kontrolatzea eta a posteriori gainbegiratzea datuen babesari buruzko araudia betetzen dela.

c) Araudiaren arabera dagozkion tratamendu-eragiketek datu pertsonalen babesean duten eragina ikuskatzea, ikuskatzea eta ebaluatzea.

d) Dagozkion aurretiazko kontsultak egitea.

11.5.2. "Datu pertsonalen tratamendua" eranskina ad hoc jarraibideen idatzia da, eta

babestu beharreko datu pertsonalak zehazten eta zehazten ditu, bai eta egin beharreko datuen tratamendua eta horien helburua ere, eta, gainera, kontratistak ezarri beharreko neurriak. Kontratistak datuak "Datu pertsonalen tratamendua" eranskinean jasota ez dagoen beste helburu baterako erabiltzen baditu, edo kontratuaren hizpaketak eta/edo indarrean dagoen araudia bete gabe erabiltzen baditu, tratamenduaren erantzuletzat ere hartuko da, eta pertsonalki egindako arau-hausteen erantzule izango da.

11.5.3. Kontratua formalizatu ondoren eta gauzatzen den bitartean "Datu pertsonalen tratamendua" eranskinean ezarritakoa aldatu edo egokitu behar bada, kontratistak errekerimendua egingo du, arrazoituta, eta aldatzeko edo egokitzeko eskatzen dituen aldaketak adieraziko ditu. Zugaztel, M.P., S.A.-ko Zuzendaritza Gerentea eskatutakoarekin ados balego, "Datu pertsonalen tratamendua" izeneko eranskin eguneratua igorriko luke, bertan tratamenduaren xehetasunak zehatz jasotzeko.

11.5. Hizpaketak tratamenduaren eragile gisa

DBEOren 28. artikuluaren eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera, kontratistak betebehar hauek bete beharko ditu, eta betebehar horiek "Datu pertsonalen tratamendua" eranskinean zehaztutakoarekin osatuko dira:

a) Datu pertsonalak tratatzea klausula honetan edo kontratua gauzatzean aplika daitezkeen gainerako kontratu-agirietan **jasotako jarraibideen arabera**, bai eta, hala badagokio, Zugaztel, M.P., S.A. enpresaren Zuzendaritza Gerenteak une bakoitzean idatziz ematen dizkionak ere. Kontratistak 10 egun balioduneko epean jakinaraziko dio Zugaztel, M.P., S.A. enpresaren Zuzendaritza Gerenteari jarraibide bat datu pertsonalak babesteko araudiaren aurkakoa izan daitekeela uste duenean.

b) Datu pertsonalen tratamenduaren helburua jakinaraztea, eta datu pertsonalak ez erabiltzea edo aplikatzea, **jakinarazitako helburuaz eta kontratuaren xedea gauzatzeaz gain**. Betebehar hori funtsezkoa da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211.1 f) artikuluaren ondorioetarako.

c) Datu pertsonalak **segurtasun-irizpideen** eta DBEOren 32. artikuluan aurreikusitako edukiaren arabera tratatzea, eta eskura dituen datu pertsonalen konfidentzialtasuna, sekretua eta osotasuna bermatzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren **segurtasun-neurri teknikoak eta antolakuntzakoak** behatzea eta hartzea. Zehazki, informazio-sistemen kategorizazioarekin eta segurtasun-neurrien aplikazioarekin bat etorriko litzateke, Administrazio Elektronikoaren eremuko Segurtasun Eskema Nazionalari buruzko 311/2022 Errege Dekretuaren arabera

Kontratua formalizatu aurretik, kontratistak adierazpen bat aurkeztu behar du, non adieraziko baita zerbitzariak non egongo diren eta zerbitzariei lotutako zerbitzuak nondik emango diren. Kontratuaren iraunaldian, kontratistak nahitaez jakinarazi beharko du adierazitako adierazpenean emandako informazioan

gertatzen den edozein aldaketa (zerbitzarien kokapenari eta lotutako zerbitzuen kokapenari buruzko adierazpena). Bi betebehar horiek funtsezkoak dira Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211.1 f) artikuluaren ondorioetarako.

d) Erabateko konfidentzialtasuna gordetzea kontratua gauzatzeko eskura dituen datu pertsonalei buruz, bai eta horien tratamenduaren ondoriozkoei buruz ere, edozein euskarritan eskuratu direla ere.

Betebehar hori kontratistaren kontura tratamenduaren edozein fasetan esku har dezakeen pertsona orori dagokio, eta kontratistaren betebeharra da, halaber, haren mendekotasun organiko eta funtzionalaren pean dauden pertsonei sekretu-betebeharrari buruzko instrukzioa egitea, bai eta betebehar horri eusteari buruzkoa ere, nahiz eta zerbitzua ematen amaitu edo zerbitzutik askatu ondoren ere.

e) Plegu honen xede diren datu pertsonalak tratatzeko baimendutako pertsonen zerrenda eramatea, eta horiek berariaz eta idatziz konfidentzialtasuna errespetatzeko eta dagozkien segurtasun-neurriak betetzeko konpromisoa hartzen dutela bermatzea, behar bezala jakinarazi behar baitizkiete. Halaber, Zugaztel, M.P., S.A. enpresaren Zuzendaritza Gerentearen eskura edukitzea egiaztagiri horiek.

f) Datuak tratatzeko baimena duten pertsonen datu pertsonalen babesari buruzko beharrezko prestakuntza bermatzea.

g) Kasu bakoitzean tratamenduaren arduradunaren berariazko baimena izan ezean, ez komunikatu (laga), ez zabaldu datu pertsonalak hirugarrenei, ezta kontserbatzeko ere.

h) Datuak Babesteko ordezkari bat izendatzea, hala badagokio, DBEOren arabera beharrezkoa denean, eta Zugaztel, M.P., S.A.ren Zuzendaritza Gerenteari jakinaraztea, baita izendapena borondatezkoa denean ere.

Hala badagokio, kontratistak izendatutako pertsona fisikoaren edo fisikoen nortasuna eta harremanetarako datuak jakinaraztea, datu pertsonalak babesteko.

i) Plegu honen xede den kontratu-prestazioa amaitu ondoren, itzuli edo suntsitu egingo duela hitz ematen du, dagokionaren arabera, eta "Datu pertsonalen tratamendua" eranskinean izapidetzen da:

- eskuratu dituen datu pertsonalak
- kontratistak tratamenduaren ondorioz sortutako datu pertsonalak
- Datu horietako edozeinetan dauden euskarriak eta dokumentuak, kopiarik gorde gabe

salbu eta lege bidez edo Erkidegoko zuzenbideko arau baten bidez baimentzen edo eskatzen bada horiek kontserbatzea; kasu horretan, ez da bidezkoa izango suntsitzea. Hala ere, kontratistak datuak gorde ahal izango ditu erantzukizunak sor daitezkeen bitartean. Azken kasu horretan, datu pertsonalak blokeatuta eta gutxieneko denboran gordeko dira, eta epe horren amaieran modu seguruan eta behin betiko suntsituko dira.

j) "Datu pertsonalen tratamendua" eranskinean zehazten diren tratamendu-jarduerak gauzatzea.
l) DBEOren 33. artikuluarekin bat etorriz, Zugaztel, M.P., S.A. enpresaren Zuzendaritza Gerenteari berehala jakinaraztea, 72 orduko epean beranduenez, bere kargura dituen datu pertsonalen segurtasunaren urraketaren bat gertatuz gero. Halaber, informazioa tratatzeko eta kudeatzeko sisteman izandako edo izan duen edo izan dezakeen gorabehera edo akatsen bat dokumentatzeko eta jakinarazteko garrantzitsua den informazio guztia, datu pertsonalen segurtasuna, osotasuna edo eskuragarritasuna arriskuan jartzen duena, bai eta kontratua gauzatzean lortutako datuak eta informazioak hirugarrenei jakinaraztearen ondorioz konfidentzialtasuna urratzen duen oro ere. Horri buruzko informazio zehatza jakinaraziko du arretaz, baita konfidentzialtasuna galdu zuten interesdunak zein izan ziren ere.
m) Pertsona fisiko batek datuen babesaren arloko eskubideetako bat baliatzen duenean (datuak eskuratzea, zuzentzea, ezabatzea eta aurka egitea, tratamendua mugatzea eta banakako erabaki automatizatuak edo aplikatu beharreko araudiak aitortutako beste batzuk ez jasotzea), kontratistak horren berri eman beharko dio Zugaztel, M.P., S.A. enpresaren Zuzendaritza Kudeatzaileari, ahalik eta lasterren. Jakinarazpena berehala egin behar da, eta inola ere ez eskubide-egikaritza jaso eta hurrengo lanegunetik aurrera, eskura duen eskaera ebazteko garrantzitsuak izan daitezkeen dokumentazioarekin eta beste informazio batzuekin batera, hala badagokio, eta eskubidea erabiltzen duenaren identifikazio fede-emailea barne. Zugaztel, M.P., S.A.ren Zuzendaritza Gerentera joango da, ahal den guztietan, hark eskubideen ariketak bete eta erantzun ahal izan ditzan.
n) Zugaztel, M.P., S.A.ko Zuzendaritza Gerentearekin lankidetzan aritzea segurtasun-neurrien arloan dituen betebeharrak betetzeko, eta segurtasun-neurrien arrailak (lortutakoak eta saiatutakoak) agintari eskudunei edo interesdunei jakinarazteko eta/edo jakinarazteko, eta inpaktuaren ebaluazioak egiten laguntzea.
Zugaztel, M.P., S.A. enpresaren Zuzendaritza Gerenteari laguntza ematea kontrol-agintaritzari (hala badagokio, DBEB) aurretiazko kontsultak egiten, hala dagokionean.
Era berean, Zugaztel, M.P., S.A.ren Zuzendaritza Gerentearen esku jarriko du, hark hala eskatuta, plegu honetan eta gainerako kontratu-agirietan aurreikusitako betebeharrak betetzen dituela frogatzeko behar den informazio guztia, eta, hala badagokio, Zugaztel, M.P., S.A.ren Zuzendaritza Gerenteak auditoreak eta ikuskapenak egiten lagunduko du,
ñ) Idatziz eramatea, baita formatu elektronikoan ere, eta DBEOren 30.2 artikuluaren arabera, Zugaztel, M.P., S.A.ren (tratamenduaren arduraduna) Zuzendaritza Gerenteak egindako tratamendu-jardueren kategoria guztien erregistroa, gutxienez artikulu horretan aipatzen diren inguruabarrak jasotzen dituena. Alde horretatik, erregistro horretan informazio hau jasoko da:

- Kontratistaren izena eta harremanetarako datuak, edo, hala badagokio,

tratamenduaren eragile diren beste pertsona batzuenak eta Zugaztel, M.P., S.A.ren Zuzendaritza Gerentearenak (tratamenduaren arduraduna).
- Egindako tratamenduen kategoriak.
- Aplikatu behar badira, segurtasun-neurri teknikoen eta antolakuntzakoen deskribapena:
- Datu pertsonalak seudonimizatzea eta zifratzea.
- Tratamendu-sistemen eta -zerbitzuen konfidentzialtasuna, osotasuna, erabilgarritasuna eta erresilientzia bermatzeko gaitasuna.
- Datu pertsonalen eskuragarritasuna eta sarbidea azkar leheneratzeko gaitasuna, gorabehera fisiko edo teknikoren bat gertatuz gero.
- Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko neurri teknikoen eta antolaketa-neurrien eraginkortasuna egiaztatzeko, ebaluatzeko eta baloratzeko prozesu erregularrak.

o) Datu pertsonalak babesteko araudia eta erantzukizun aktiboaren betebeharra betetzen direla frogatzen duten ebidentziak izatea. Adibidea: auditoretzen betetze-mailari edo emaitzei buruzko aurretiazko ziurtagiriak, zeinak Zugaztel, M.P., S.A.ren Zuzendaritza Kudeatzailearen esku jarri beharko baitira, hark hala eskatuz gero. Halaber, kontratua indarrean dagoen bitartean, M.P., S.A. enpresak Zugazteleko Zuzendaritza Kudeatzailearen esku jarriko ditu une bakoitzean egindako informazio, ziurtagiri eta auditoria guztiak.

p) Informazio eskubidea: Kontratistak, datuak biltzerakoan, egingo diren datuen tratamenduei buruzko informazioa eman behar du. Datuak biltzen hasi aurretik, Zugaztel, M.P., S.A.-ko Zuzendaritza Gerentearekin adostu behar da informazioa nola idatzi eta zein formatutan emango den.

Klausula hau eta bertan ezarritako betebeharrak eta "Datu pertsonalen tratamenduari buruzko eranskina" dira Zugaztel, M.P., S.A.ren Zuzendaritza Kudeatzailearen eta kontratistaren arteko tratamendu-enkarguaren kontratua, DBEOren 28.3 artikuluak aipatzen duena. Hemen jasotzen diren betebeharrak eta prestazioak ezin dira ordaindu baldintza-agirietan eta gainerako kontratu-agirietan aurreikusitakoaz beste modu batean edo gehigarri batean, eta agiri honen xede den zerbitzu-prestazioaren eta kontratuaren iraupen bera izango dute, eta, hala badagokio, kontratuaren epe berdinetan luzatuko dira. Hala ere, kontratua amaitzean, sekretu-betebeharrak indarrean jarraituko du, denbora-mugarik gabe, kontratua gauzatzen parte hartzen duten pertsona guztientzat.

Plegu honen xedea betetzeko, ez da beharrezkoa kontratistak Zugaztel, M.P., S.A.-ren Zuzendaritza Gerentearen ardurapeko beste datu pertsonalik eskuratzea eta, beraz, ez du baimenik "Datu pertsonalen tratamendua" eranskinean zehaztutakoak ez diren beste datu batzuk eskuratzeko edo tratatzeko. Kontratua gauzatu bitartean gorabeheraren bat gertatzen bada eta, horren ondorioz, Zugaztel, M.P., S.A. enpresaren Zuzendaritza Gerentearen ardurapeko datu pertsonaletara — "Datu pertsonalen tratamendua" eranskinean jaso gabekoetara — ustekabean edo gorabeheraren bat gertatzen bada, kontratistak horren berri eman beharko dio Zugaztel, M.P., S.A. enpresaren

Zuzendaritza Kudeatzaileari, zehazki haren Datuak Babesteko Ordezkariari, ahalik eta arreta handienarekin eta gehienez 72 orduko epean.

11.6. Azpikontratazioei lotutako tratamendu-azpienkarguak

Kontratistak beste pertsona batzuekin azpikontratatu nahi badu kontratua gauzatzeko, eta azpikontratistak, kontratatzen badute, datu pertsonalak eskuratu behar baditu, kontratistak horren berri emango dio aldez aurretik Zugaztel, M.P., S.A. enpresaren Zuzendaritza Gerenteari, eta identifikatuko du zer datu pertsonal tratatu behar dituen, Zugaztel, M.P., S.A. enpresaren Zuzendaritza Kudeatzaileak erabaki dezan, hala badagokio, azpikontratari baimena eman ala ez.

Nolanahi ere, azpikontratazioa baimentzeko, ezinbesteko baldintza da honako baldintza hauek betetzea, nahiz eta baldintza horiek bete, Zugaztel, M.P., S.A. enpresaren Zuzendaritza Gerenteari dagokio baimen hori ematea edo ez ematea:

• Azpikontratistak datu pertsonalen tratamendua bat etortzea indarrean dagoen legearekin, agiri honetan jasotakoarekin eta Zugaztel, M.P., S.A. enpresaren Zuzendaritza Gerenteak emandako jarraibideekin,

• Kontratistak eta azpikontratistak datuen tratamendurako enkargu-kontratu bat formalizatzea, baldintza-agiri honetan aurreikusitakoak baino baldintza murriztaileagoetan, eta Zugaztel, M.P., S.A. enpresaren Zuzendaritza Gerentearen esku uztea, halakorik badagoen eta haren edukia egiaztatzeko.

Kontratistak Zugaztel, M.P., S.A. enpresaren Zuzendaritza Gerenteari jakinaraziko dio beste azpikontratista batzuk laneratzean edo ordeztean aurreikusitako edozein aldaketa, eta, horrela, dagokion baimena emateko aukera emango dio Zugaztel, M.P., S.A. sozietatearen Zuzendaritza Kudeatzaileari. Zugaztel, M.P., S.A.ren Zuzendaritza Gerenteak ez dio erantzun kontratistak egindako eskaerari, eta haren aurkakotasunaren parekoa da hori

Kontratistak hirugarrenekin azpikontratatu nahi baditu zerbitzariak edo horiei lotutako zerbitzuak, lizitatzaileek aldez aurretik adierazi beharko dute eskaintzan zer izen edo profil duen – kaudimen profesionaleko edo teknikoko baldintzen arabera definituta – zein azpikontratistari agindu behar zaion zerbitzu horiek egiteko. Betebehar hori funtsezkoa da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211.1 f) artikuluaren ondorioetarako.

SPKLren 215.4 artikuluaren arabera, azpikontratista pertsona kontratista nagusiaren aurrean bakarrik egongo da behartuta, eta hark foru-erakunde kontratatzailearen aurrean kontratua gauzatzeko erantzukizun osoa izango du. Datuen babesari dagokionez, baldintza-agirietan, kontratuan eta, gainera, SPKLren 202.1 artikuluan jasotako betebeharra bete beharko da, hau da, datuak babesteko araudia, DBEO eta DBLOa bete beharko dira.

11.7. Hirugarrenen baimenak.

Lanaren Zuzendaritzak eta ZUGAZTEL, M.P., S.A.k bere gain hartu ahal dituzte

egokitzat jotzen dituzten kontratuak eta kudeaketak. Hori gorabehera, kontratistak behar diren baimenak eta lizentziak eskatuko dizkio norbanako, elkarte, enpresa eta erakundeei, lana egokiro egiteko. Kontratistak ordainduko ditu baimen horien ondoriozko gastuak, halakorik badago.
Hori dela eta, kontratistak onartu egin beharko ditu eraginpekoek euren eskubide eta eskumenak erabiliz ezartzen dizkioten baldintza eta preskripzio guztiak eta Administrazioaren iritziz lana hobeto egiteko komenigarriak edo zentzuzkoak diren eskaera eta gomendioak.

11.8. Informazioaren segurtasuna.

Kontratistak ZUGAZTEL, M.P., S.A.ren Informazioaren Segurtasunari buruzko Araudia ezagutu eta bete beharko du. Kontratugilearen profilean eskuragarri dago (Hornitzailentzako informazioaren segurtasunari buruzko Araudia eta hura garatzen duen dokumentazioa).
Halaber, kontratistak bere eraginpeko profesional guztiei jakinarazi beharko die, hala enpresakoei nola azpikontratatuei.
Segurtasun-neurrien ezarpen-maila egiaztatzeko eskatu zaion informazioa Zugazteli emateko konpromisoa hartzen du kontratistak (segurtasuna.zugaztel@bizkaia.eus korreoaren bidez), gehienez, 10 egun balioduneko epean.
Informazioaren segurtasun arloan Zugaztelentzat adierazgarriak diren gertaera eta gorabehera guztiak berehala jakinarazteko konpromisoa hartzen du kontratistak (segurtasuna.zugaztel@bizkaia.eus korreoaren bidez).
Kontratistak Zugaztelen gaitasuna eta ahalmena aitortzen ditu, aurreko segurtasun-neurrien betetze-maila ikuskatzeko, bigarrenak aldez aurretik abisu formala eginda, gutxienez, 72 ordu balioduneko epearekin.

11.9. Kontratistari eskatu ahal zaizkion gastuak eta zergak.

Honako gastu eta zerga hauek kontratistaren kontura izango dira: (i) kontratua formalizatzekoak, eskritura publikoa egiten bada; (ii) eta kontratuaren xedea gauzatzeko lortu beharreko lizentzia eta baimen guztienak.

Kontratista, halaber, kontratua bete ahal izateko egin behar diren gastu guztiak ordaintzera derrigortuta egongo da, hala nola gastu orokorrak, finantzarioak, aseguru gastuak, garraioak eta joan-etorriak, materialak, instalazioak, kargupean dituen langileen zerbitzu-sariak, frogatzeko eta probak egiteko gastuak, tasak eta zerga mota guztiak, BEZa, jarduera egiteagatik egoki dakiokeen zerga eta kontratuaren exekuziotik erator daitezkeen gastu guztiak kontratua indarrean dagoen bitartean. Beraz, gastu horiek guztiak ezin dira jasanarazi partida independente gisa.

11.10. Kontratistaren ondorengotza-kasuak

Sozietate kontratistak enpresen bategite batean parte hartzen badu, kontratuak indarrean jarraituko du bategitearen ondorioz sortu den erakundearekin edo erakunde xurgatzailearekin; izan ere, erakunde hori kontratutik sortutako eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da. Era berean, enpresen (edo haien jarduera-adarren) zatiketa, ekarpena edo eskualdatzea gertatzen denean, kontratuak indarrean jarraituko du kontratua eskuratuko duen erakundearekin; erakunde horrek kontratutik eratorritako eskubide eta betebehar guztiak hartuko ditu subrogazio bidez, baldin eta kontratua adjudikatu zenean beharrezko ziren kaudimen- eta gaitasun-baldintzak betetzen baditu edota aipatutako eragiketen onuradun diren sozietateek eta, artean irauten badu, zatitutako ondare, enpresa edo adarren iturburua den sozietateak, harekiko erantzukizun solidarioa hartzen badute kontratua gauzatzeari dagokionez. Subrogazioa ezinezkoa bada kontratua eskuratuko duen erakundeak beharrezkoak diren kaudimen- eta gaitasun-baldintzak betetzen ez dituelako, kontratua suntsiarazi egingo da, eta adjudikaziodunaren erruz suntsiarazi dela joko da ondorio guztietarako.

Aurreko ondoeetarako, gertatu den gorabehera jakinaraziko dio enpresak kontratazio-organoari.

Atal honen lehen paragrafoan aipatutako merkataritza eragiketen ondorioz kontratua beste enpresa bati egotziz gero, behin betiko bermea, entitate egileslearen iritziz, berriztu edo beste berme batekin ordeztu daiteke, entitate berriak harpidetuko duena. Kontuan hartuko dira azken horren arrisku bereziak. Horrelakoetan, aurreko behin betiko bermeak indarrean jarraituko du berme berria eratu arte.

Kontratistaren ondorengotzari dagokionez, aldi baterako enpresa-elkartea denean, SPKLren 69.9 artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

12. KONTRATUA GAUZATZEA

12.1 Kontratua gauzatzerakoan plegu honetako eta plegu honetako klausulak beteko dira, bai eta ZUGAZTEL, M.P., S.A.k, kontratuaren arduradunaren bitartez, kasua bada, kontratistari kontratua interpretatzeko ematen dizkien jarraibideak ere.

12.2 Kontratistak erantzun beharko du emandako zerbitzuaren kalitateaz, bai eta kontratua gauzatu bitartean omisio, akats edo metodo ezegokien ondorioz ZUGAZTEL, M.P., S.A.k edo hirugarrenek jasandako ondorioez ere.

12.3 Plegu honetan arautu gabeko gaiei dagokienez, SPKLn eta jurisdikzio pribatuan xedatutakoaren bidez arautuko da kontratu hau gauzatzea.

12.4 Lanak egiteko epea Plegu honen AZALEKO "J" ATALEAN ezarrita dago, ZUGAZTEL, M.P., S.A.k lanak hasteko beren beregiko agindua ematen duenetik hasita, eskaintzak aldatzea ekar dezakeen kalterik gabe izanak edo egiaztapen, balorazio nahiz ziurtatze partzialetan onartu izanak ez dio inolako eskubiderik emango.

12.5 ZUGAZTEL, M.P., S.A.k ezarritako kontratua gauzatzeko epea eta epe partzialak bete behar ditu kontratistak, baita proposamenarekin batera aurkeztutako Lan Plangintzarena ere, hala badagokio. Hari egotzi ahal zaizkion arrazoiak direla eta, atzeratuta ibiliko balitz epe osoarekiko edo zerbitzua emateko epe partzialekiko edo Lan Plangintza beteko ez balitz azken epea ez betetzeko moduan, Foru Sozietateak, bereizi gabe, SPKLn ezarritako eran eta baldintzetan, kontratua suntsiaraz dezake, edo eguneroko zigorrak ezarri, hain zuzen ere, kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko 0,20 euroko proportzioan, salbu eta Plegu honen AZALEKO "P" ATALEAN beste zigor batzuk berariaz zehaztu badira.

Zigorrak aplikatzeak eta ordaintzeak ez du baztertzen ZUGAZTEL, M.P., S.A.k kontratista berandutzeagatik izan dezakeen kalte-galeren ordaina.

Atzerapena kontratistari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik bada, SPKLren 194.2 artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

12.6 Enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du beharrezkoa den informazio osagarria eta laguntza teknikoa emateko, kontratuaren emaitza behar bezala erabiltzeko (agiriak eta era guztietako informazioa).

12.7 Lanak egin bitartean, enpresa adjudikaziodunaren ardurapekoak dira kontratua zuzen aplikatzea eta ezbeharraren arriskuak, hala materialarena nola langileena eta hirugarrenena.

12.8 Adjudikaziodunak ordaindu beharko du hirugarrenei egiten zaizkien kalteengatiko kalte-ordaina, SPKLren 196. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Era berean, kalte-ordaina adjudikaziodunaren kontura izango da ZUGAZTEL, M.P., S.A.ri edo beraren menpeko langileren bati kalte egiten bazaio, arrazoi berberengatik eta arestian aipatutako 214. artikuluan ezarritako salbuespenekin.

12.9 Adjudikaziodunak bere gain hartuko du kontratua gauzatzeko arriskua eta ZUGAZTEL, M.P., S.A.tik kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango du SPKLren 196. artikuluan zehaztu eta ezarritako kasuetan eta eran. Alabaina, espedientean adjudikaziodunak frogatu egin beharko du ezbeharra gertatu aurretik zentzuzko neurriak hartu zituela ezbehar naturalen bat gertatzen bazen lanek eta tresnek ahalik eta kalte gutxien izan zezaten.

12.10 AZALEKO "R" ATALEAN ezarritako aldizkakotasunean, ZUGAZTEL, M.P., S.A.k ziurtagiri egokia emanez zehaztuko du kontratistak egindako prestazio osoa edo partziala bat datorren bera gauzatzeko eta betetzeko ezarri diren baldintzekin, eta, hala behar denean, kontratatutako prestazioak egiteko eta haiek jasotzean ikusitako akatsak zuzentzeko eskatu ahal izango da hurrengo klausulan adierazitako moduan. Egindako lanak ez badatoz bat kontratatu den prestazioarekin, kontratistari egotzi beharreko akatsak edo hutsak egin direlako, ZUGAZTEL, M.P., S.A.k atzera bota ahal izango du; orduan, ordaintzeko betebeharraz salbuetsita geratuko da edo, hala dagokionean, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izango du.

12.11 Berme-aldian zehar edo epe hori hasi baino lehen egiaztatzen bada egindako lanek akatsak edo hutsak dituztela, ZUGAZTEL, M.P., S.A.k kontratistari eskatu ahal izango dio haren erruz gertatu diren akatsak, hutsune teknikoak, oker materialak, alderauzketak eta lege edo arauen urratzeak zuzentzeko; horretarako gehienez bi hileko epea emango dio.

12.12 Kontratua amaitzen denean, ZUGAZTEL, M.P., S.A.k kontratuaren xede izan diren lanak jasotzeko egintza formala egingo du. Une horretatik aurrera, plegu honetan ezartzen den bermearen epea zenbatzen hasiko da.

13 KONTRATUA GAUZATZEKO ARDURADUNA.

13.1 Kontratuaren arduradunak eginkizun hauek izango ditu:

a) Zehaztapen teknikoen plegua eta kontratuan edo xedapen ofizialetan ezarritako gainerako baldintza teknikoak interpretatzea.

b) Kontratuko prestazio guztiak gauzatzeko behar diren baliabideak eta antolaketa egon daitezela eskatzea.

c) Kontratuaren xedea lortzeko agindu egokiak ematea.

d) Komeni diren aldaketak proposatzea.

e) Ziurtagiri partzialak egitea, hala behar denean, eta egindako prestazioei dagozkien fakturak adostea, ezarritako gauzatze- eta ordainketa-epeen arabera.

f) Kontratua gauzatu bitartean sor daitezkeen gorabehera guztiak izapidetzea.

g) Kontratua ondo eta egokiro gauzatzeko eta hura gainbegiratzeko egokitzat jotzen dituen bileretarako deiak egitea. Enpresaburu adjudikaziodunaren ordezkaritzak derrigorrean joan beharko du bilera horietara, kontratua gauzatzean nola edo hala esku hartzen duten fakultatibo, teknikari, letradu edo espezialistek lagunduta.

14. KONTRATUA ALDATZEA

ZUGAZTEL, M.P., S.A.k kontratua aldatu ahal izango du SPKLren 205. artikuluan ezarritako arrazoi tasatuak direla eta. Gainera, kontratua aldarazteko arrazoi izango dira AZALEKO "U" ATALEAN ezarritakoak.

Aurreko ataletan adierazitako arrazoiak direla-eta adostutako aldaketak nahitaezkoak izango dira enpresa kontratistarentzat. Kontratistak entzunaldiaren izapidea egiteko bost egun balioduneko epea du, eta epe hori igarota ez du kalte-ordainik eskatzeko eskubiderik izango, nahiz eta kontratuaren xede diren prestazioetako bat galdu edo murriztu.

Kontratu-aldaketen prezioa era kontresankorrean finkatuko dute alde biek, enpresa kontratistak eskainitako prezioak kontuan hartuta, eta inola ere ezingo du gainditu hasierako prezioaren % 20, eta ez du ekarriko kontratuan jasota ez dauden aleko prezio berriak ezartzea. (204. art. SPKL).

Kontratuaren aldaketak idatziz egingo dira.

15. LUZAPENA

Kontratua luzatu ahal izango da plegu honen AZALEKO "Q" ATALEAN adierazitako moduan. Betiere, luzapen bakoitza baliozkoa izan dadin, kontratazio-organoak hura onartzea erabaki beharko du beren-beregi eta aldez aurretik. Derrigorrezkoa izango da enpresa kontratistarentzat kontratuaren iraupen-epea bukatu baino bi hilabete lehenago abisatuz gero, salbu eta pleguaren azalean epe luzeagoa ezarri bada. Aurreabisuko obligaziotik salbuetsita egongo da plegu honen azalean ezarritako kontratuaren iraupena bi hilabetetik beherakoa bada.

Kontratua inola ere ezingo da aldeen arteko isilbidezko adostasunez luzatu.
Hasieran jarritako behin betiko bermea luzapen aldiari aplikatu ahal izango zaio eta ez da haren zenbatekoa doitu beharrik izango, salbu eta luzapenarekin batera kontratuaren aldaketa ere onartzen denean.

16. KONTRATUA ETETEA

ZUGAZTEL, M.P., S.A.ko kontratazio-organoak kontratua gauzatzea etetea erabaki ahal izango du, SPKLn ezarritakoei jarraituz.

17. JASOTZEA ETA LIKIDAZIOA

Kontratuaren indarraldi osoa igarotakoan, kontratistak kontratua bete duela ulertuko da baldin eta kontratuaren xedea guztiz gauzatu badu, kontratuaren baldintzen

arabera eta ZUGAZTEL, M.P., S.A.ren gogara. Lanak jasotzea eta kontratuaren likidazioa SPKLren 210. artikuluan ezarritakoari jarraituz arautuko dira. Lanak jasotzean, ZUGAZTEL, M.P., S.A.k akats txikiak dituzten lanak onartu ahal izango ditu. Hala ere, aktan kontratistari epea ezarriko dio lanak zuzendu eta akatsik gabe uzteko. Horrelakoetan, akats horien zerrenda erantsiko da, kontratistak adostasunez sinatuta edo sinatu gabe, eta kontratistak hilabeteko (1) epea izango du akatsak zuzendu edo konpontzeko.

Kontratuko berme epea zerbitzuaren amaierako egunetik (jasotze-egintza formaletik) aurrera zenbatuko da, eta AZALEKO "K" ATALEAN ezarritako epea izango da, edo, adjudikaziodunak berme epe luzeagoa eskaintzeko konpromisoa hartu badu, zehaztapen teknikoen pleguan ezarritako epea, haren proposamenaren arabera luzatuta.

Jasotze partzialak badaude, jasotako zatien bermearen epea dagozkien jasotze partzialen egunetatik aurrera hasiko da zenbatzen.

Epe hori igarotakoan, kontratistak ez baditu akta horretan jasotako akats guztiak zuzendu edo konpondu, ZUGAZTEL, M.P., S.A.k kontratua suntsiarazi ahal izango du, eta kontratistak kalte-ordaina eman beharko dio ez-betetzearen ondorioz jasandako kalte eta galerengatik. Bidezkoa izango da, betiere, behin betiko bermea konfiskatzea, horrelakorik jarri bada.

Kontratuaren likidazioa onetsita eta berme epea igarota, behin betiko bermearen gainean egikaritu beharreko erantzukizunik ez badago, bermea itzultzeko edo kitatzeko erabakia hartuko da

Kontratua amaitzen denetik urtebete igaro eta artean ez bada ez harrera formalik ez likidaziorik egin, eta horren arrazoiak ezin bazaizkio kontratistari egotzi, orduan, bermea itzuli edo kitatu egingo da.

18. KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATATZEA

18.1 Kontratua lagatzeko eskatzen diren baldintzei dagokienez SPKLren 214. artikuluan xedatutakoa beteko da. Nolanahi ere, ZUGAZTEL, M.P., S.A.k aldez aurretik eta berariaz baimendu behar du kontratuaren lagapena.

Kontratua ezin izango da laga hasierako kontratistaren ezaugarri pertsonalak edo teknikoak kontratua adjudikatzeko arrazoi erabakigarria izan badira.

18.2 Azpikontratazioa

Kontratua zuzenduko duten azpikontratazioari buruzko berariazko arauak plegu honetako AZALEKO "T" ATALEAN zehaztuko dira, hala denean.

Kontratistak zerbitzuaren zati bat hitzartu ahalko du hirugarrenekin, kontratuak edo plegu honetako inprimaki azalak bestelakoa adierazi ezean edo, haren izaera eta baldintzak direla-eta, adjudikaziodunak zuzenean gauzatu behar dela ondorioztatu ezean.

ZUGAZTEL, M.P., S.A.k jakinarazi zaion azpikontratazioa ez onartzeko eskubidea izango du, horretarako arrazoiak emanez, baldin eta uste badu proposatu den azpikontratista horren gaitasun teknikoa egiaztatu ez dela edo ez direla behar bezala bermatu azpikontratua gauzatzeko baldintza teknikoak.

Azpikontratistek soilik izango dituzte betebeharrak kontratista nagusiaren aurrean. Beraz, ZUGAZTEL, M.P., S.A.ren aurrean, kontratista nagusiari dagokio kontratua gauzatzeko erantzukizuna, plegu honen eta kontratuaren baldintzen arabera.

19. KONTRATUA AZKENTZEA ETA SUNTSIARAZTEA ETA BERME-ALDIA.

19.1 Kontratua azkendu egingo da hasieran aurreikusitako epea betetakoan.

19.2 Kontratua suntsiarazteko arrazoiak honako hauek izango dira:

- SPKLren 211. eta 313. artikuluetan aurreikusitakoak.
- Hasiera batean adostutako terminoei jarraituz prestazioa bete ezin bada, eta kontratua aldatzea ezinezkoa denean, 204. eta 205. artikuluekin bat.
- Azpikontratazio arloko obligazioak ez betetzea.
- Kode Zibilean jasotakoak.
- Zehazki, honako hauek jotzen dira funtsezko betebehartzat, eta horiek ez betetzeak kontratua suntsiaraztea ekar dezake 211.1.f) artikuluan xedatutakoaren arabera: Zugaztelek eskatutako epean eta moduan egindako lanak ez entregatzea eta Zugaztelek bidalitako idatzizko aginduak ez betetzea.

19.3 Berme-aldia kontratuan ezarriko da eta kontratuaren xede izan diren lanak modu formalean jasotzen diren egunaz gero (agiri honetako 12.12. klausulan azaldutakoa) hasiko da zenbatzen. Dena den, berme-aldia ezin da izan plegu honetako AZALEKO "K" ATALEAN ezarritakoa baino laburragoa.

Berme-aldia amaitzean ZUGAZTEL, M.P., S.A.k ez badio kontratistari esan emandako zerbitzuan edo aholkularitza nahiz laguntza teknikoa behar izan duten lanetan oztopo, oker edo akatsak aurkitu dituela, kontratua iraungi egingo da eta horrekin batera kontratistaren erantzukizuna ere bai. Alabaina, salbuespen modura, ezkutuko akatsak edo hutsak aurkitzen badira kontratista horien arduraduna izango da, berme-aldia amaitu arren.

19.4 Kontratistaren erruagatik azkentzen bada kontratua, bertan ezarritako prestazioak itzultzeaz gainera ZUGAZTEL, M.P., S.A.k kontratistak kontratua ez betetzeagatik eragin dituen kalte eta galeren ordaina jasotzeko eskubidea izango du.

19.5 ZUGAZTEL, M.P., S.A.k eskubidea izango du kontratu honi dagozkion zehaztapen teknikoen pleguan jasota dauden norainokoa eta jarduerak osorik edo zati batean gauzatzeko.

19.6 ZUGAZTEL, M.P., S.A.k bere kabuz desegin ahal izango du kontratua, egin diren eta ZUGAZTEL, M.P., S.A.k onartu dituen lanen zati proportzionala ordainduta.

20. ERREKLAMAZIOAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA.

20.1 SPKLk ezarritakoari jarraituz, Bizkaiko Lurralde Historikoko Kontratu-Errekurtsoen Foru Administrazio Epaimahaiak eskumena izango du legezko interesatuek egindako erreklamazioak ebazteko, kontratazio arloan errekurtso berezia egin daitekeen kasuetan, SPKLren 44. artikuluarekin bat.

20.2 Kontratazio arloan errekurtso berezia jartzea bidezkoa ez den kasuetan, kontratua prestatu eta adjudikatzeko egintzak apelatzeko modukoak izango dira. Horretarako, gora jotzeko errekurtsoa jarriko da Bizkaiko Foru Aldundiaren Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanen Sailean, urriaren 1eko Administrazio Prozedura-Erkidearen 39/2015 Legean ezarritakoei jarraituz.

20.3 Administrazioarekiko auzien jurisdikzioak eskumena izango du kontratua prestatu eta adjudikatzen den fasean ZUGAZTEL, M.P., S.A.ren edo Bizkaiko Foru Aldundiaren erabakien berri izateko (SPKLTBren 21. artikulua).

20.4 Kontratu hau prestatzeari, adjudikatzeari, interpretatzeari, betetzeari eta azkentzeari buruzko gaietan gertatzen diren gorabeherak ebazteko jurisdikzio zibileko epaitegiak izango dira eskudun; eta bi alderdiak Bilboko epaitegi eta auzitegien foruaren mende jarriko dira beren borondatez, eta berariaz uko egingo diote legokiekeen beste edozein forori.

1. ERANSKINA
PROPOSAMEN EKONOMIKO MOTA EREDUA

Jn./And.: .....

NAN zk.: .....

Honako enpresaren ordezkari gisa: .....

IFZ: .....

Bulegoak (helbidea): .....

.....

Klausula Berezien Pleguetan ezarri bezala egiaztatu dut, eta honakoa adierazi nahi dut:

(1) Jakitun nago ZUGAZTEL, M.P., S.A.k argitaratutako iragarkiez. Horren bidez honako kontraturako LEHIAKETArako deialdia egiten da .....
.....
.....

(2) Zehaztapen Teknikoen Plegua eta Kontratazioaren Klausula Berezien Plegua aztertu eta ezagutzen ditut, baita gainerako dokumentazioa ere.

(3) Halaber, Klausula Berezien Pleguaren lehenengo klausulak aipatzen dituen legezko eta arauzko testuak ezagutzen ditut.

(4) Goiko 2., 3. eta 5. ataletan eta hurrengo atalean aipatutako agiri, lege eta araudiak oso-osorik onartzen ditut eta men egiten diet; eta bereziki, erabat onartzen dut klausuletariko bat, Zerga Administrazioak ZUGAZTEL, M.P., S.A.ri beraren datuak laga ahal izango dizkiola dioen klausula hain zuzen ere.

(5) Aipatutako kontratua ondorengo prezioarekin gauzatzeko konpromisoa hartzen dut:

Zerga oinarria :	.....	euro
BEZ:	.....	euro
Guztira:	.....	euro

Lekua, eguna eta sinadura

... ...n, ...(e)ko ... ...aren ... ...(e)(a)n

SINADURA,

2. ERANSKINA

EUROPAKO KONTRATAZIO DOKUMENTU BAKARRA

Urrats hauek egin behar dira Europako kontratazio dokumentu bakarra (EKDB) betetzeko:

1) Deskargatu ordenagailura DEUC.xml fitxategia Kontratatzailearen profiletik
2) Ireki esteka hau: https://visor.registrodelicitadores.gob.es/espd-web/welcome
3) Hautatu hizkuntza: "*español*".
4) Hautatu "*soy un operador económico*".
5) Klikatu "*importar un DEUC*".
6) Klikatu "*examinar* " eta hautatu 1. urratsean deskargatutako xml dokumentua
7) Espedienteari dagokion EKDB agertuko da pantailan. Ondoren bi aukera daude: dokumentua bete eta lizitazio plataforman txertatu ondoriozko xml dokumentua edo, bestela, betetako dokumentua inprimatu, eskaneatu, sinadura elektronikoa ezarri eta kargatu

Nahi baduzue, *"Kontratazio publikoari buruzko gidalerro berrian ezartzen den Europako kontratazio dokumentu bakarraz Administrazioko Kontratazioaren Aholku Batzordeak emandako gomendioa" (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 85. zk., 2016ko apirilaren 8koa, ostirala; III. sek., 24.845. or.)* eskura dezakezue esteka honetan:

http://www.boe.es/boe/dias/2016/04/08/pdfs/BOE-A-2016-3392.pdf

3. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPEN EREDUA, KONTRATISTAREN BETEBEHARREI BURUZKOA

**Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, partaideetako bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du.*

.....jaunak / andreak, NAN zk....., bere izenean edo ordezkatzen duen pertsona fisikoaren/juridikoaren izenean .....(idatzi enpresaren izen soziala), IFZ zk....., honako hau adierazten du:

1.- Identifikazio-datuak. - Lizitazio honetan errekerimendu, komunikazio eta jakinarazpen guztiak legeak ezarritako ondore juridikoekin egiteko datuak hauexek dira:

(Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan helbide bakarra beteko da)

Helbide elektronikoa: .....

Helbidea (kalea, zk., pisua, posta kodea, herria eta probintzia) .....

.....

Telefonoa: .....

Faxa: .....

Harremanetarako pertsona: .....

2.- Arauak betetzea.- Eskaintza egiteko kontuan hartu dira emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan aplikatzeko araudia eta ingurumen, gizarte eta lan arloetan aplikatzeko araudia, Europar Batasuneko Zuzenbidean, estatuko Zuzenbidean, hitzarmen kolektiboetan edo Estatua lotesten duten nazioarteko ingurumen-, gizarte- eta lan-zuzenbidearen xedapenetan ezarriak, eta bermatu egiten ditu kontratua gauzatuko duten langileen lan eskubideak.

Kontratistak bere gain hartzen du oinarrizko lan eskubideak errespetatzeko betebeharra produkzio-katean eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen funtsezko konbentzioak betetzeko, eta bereziki honako hauek:

29. eta 105. konbentzioak, bortxazko lana ezabatzeari buruzkoak.

87. eta 98. konbentzioak, askatasun sindikala, elkartzeko askatasuna eta negoziazio kolektiboari buruzkoak.

100. konbentzioa, balio bereko lan batengatik gizonezkoek eta emakumezkoek ordainsari berdina izateari buruzkoa.

111. konbentzioa, enplegua izateko eta lan baldintzetan baztertua ez izateari buruzkoa, arraza, kolore, sexu, erlijio, iritzi publiko edo jatorri sozialeko arrazoiak tarteko.

138. konbentzioa, haur esplotazioa eta lana ezabatzeari buruzkoa.

182. konbentzioa, haur lan erarik txarrenak debekatu eta hori ezabatzeko berehalako ekintzari buruzkoa.

3.- Desgaitasuna duten langileak legez eduki beharra.-. Kontratistak, kontratuaren indarraldian, beste betebehar batzuen artean, desgaitasuna duten langileak eduki beharko ditu, enpresako plantillaren 100eko 2 gutxienez, plantillan 50 langile edo gehiago badaude. Hori guztia desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruz eta gizarteratzeko Lege Orokorraren Testu Bateginaren 42. artikuluarekin bat, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak onetsia, edo bestela apirilaren 8ko 364/2005 Errege Dekretuak erregelamenduz garatutako

ordezko neurriak hartu beharko ditu. Halaber, konpromisoa hartzen du aipatu obligazioa betetzeko kontratuaren arduradunaren aurrean, hark eskatuta, kontratuaren indarraldian eta uneoro edo, edonola ere, azken faktura bidali aurretik.

4.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko legezko betebeharra. - Kontratistak bere gain hartzen du, adjudikaziodun izanez gero eta kontratuaren indarraldian, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko betebeharra, Euskadiko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoarekin bat. Adierazten du (jarri kopurua) ..... langile dituela. Halaber, konpromisoa hartzen du Berdintasun Plana egiaztatzeko, legez behartuta egonez gero (50 langiletik gora). Kontratuaren arduradunaren aurrean egiaztatuko du, hark eskatuta, kontratuaren indarraldian eta uneoro edo, edonola ere, azken faktura bidali aurretik.

5.- Berdinketa hausteko berariazko adjudikazio-irizpideak. - Berdinketa hausteko irizpideak egiaztatzen dituzten agiriak aurkezteko moduan dago, adjudikazio-irizpideak aplikatu ondoren berdinketa izanez gero. Eskakizunen lehia balioesteko une erabakigarria izango da proposamenak aurkezteko epea bukatzea:

Desgaitasuna - Horretarako egindako ziurtagiriaren bidez edo dagozkion agirien bidez egiaztatuko da: a) Desgaitasuna duten langileak eduki beharko ditu, enpresako plantillaren 100eko 2 gutxienez, eta b) plantillan desgaitasuna duten langile finkoen portzentajea.

Kontratuen portzentajea plantillan. Horretarako, egindako ziurtagiriaren bidez edo dagozkion agirien bidez egiaztatuko da.

Emakume diren langileen portzentajea plantillan. Horretarako, egindako ziurtagiriaren bidez edo dagozkion agirien bidez egiaztatuko da.

Laneratzeko enpresa. - Horretarako, egindako ziurtagiriaren bidez edo dagozkion agirien bidez egiaztatuko da, abenduaren 13ko 44/2007 Legeak araututako lanerako enpresetako bat dela egiaztatzen dueña.

Irabazteko asmorik gabeko entitateak. - Fundazio-estatutu edo arauen bidez egiaztatuko da, eta dagokion Erregistro ofizialean inskribatuak egongo dira.

Bidezko Merkataritza. - Bidezko Merkataritzako Elkartea dela aitortzen duen justifikantearen bidez egiaztatuko da.

6.- Merkataritza Kodearen 42.1 artikulua. - Ordezkatzen duen enpresak:

☐ BAI. Merkataritza Kodearen 42. 1 artikuluak jasotakoren bat betetzen du.

☐ EZ. Ez du betetzen Merkataritza Kodearen 42. 1 artikuluak jasotakorik.

Erantzuna baiezkoa bada:

☐ EZ da lehiatzen kontratuaren adjudikaziora banakako proposamenak aurkezten dituzten enpresekin, talde berekoak badira ere edo Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan jasotako baldintza alternatiboren bat izanda ere.

☐ BAI lehiatu egiten da kontratuaren adjudikaziora banakako proposamenak aurkezten dituzten enpresekin, talde berekoak badira ere edo Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan jasotako baldintza alternatiboren bat izanda ere. Honako hauek dira:

IFZ	Izen soziala

3. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPEN EREDUA, KONTRATISTAREN BETEBEHARREI BURUZKOA

7.- Hitzarmen kolektiboa eta soldata. -

Kontratuaren xede den jarduera egingo duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa hauxe dela:

☐Bai / ☐Ez du aplikatzeko hitzarmen kolektiborik (adierazi dagokion aukera).

(Bakarrik betetzeko hitzarmen kolektiboa aplikatu behar bada)

Hitzarmenaren izena:	
Nongo Aldizkari Ofizialean argitaratu den:	
Noiz argitaratu den	

Konpromisoa hartzen du, kontratua gauzatzean, sektoreko hitzarmen kolektiboan jasotako ordainsaria ordaintzeko, langileari dagokion kategoria profesionala kontuan hartuta, eta inola ere ez dela izango hitzarmenean adierazikotik beherakoa.

8.- Enpleguari eta plantillari eustea.

Kontratua gauzatuko duten pertsona kopurua eta horien lanaldia, urteko lan-orduetan adierazita, honako hau dela:

Langile kopurua	
Ordu kopurua	

Plantilla homogeneoa ez bada kontratuan zehar, egutegia aurkeztu beharko du, eta zehatz-mehatz adierazi pertsona kopurua, bakoitzaren urteko lanaldia lan-orduetan, baita kontratuaren hasi eta buka-orduak ere.

9. Konpromisoa hartzen du Administrazio-Klausula Berezien Pleguan eta Azalean adierazitako baldintza bereziak betetzeko, baita, hala badagokio, Zehaztapen Tekniko Berezien Pleguan jasotakoak ere.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondoreak izan ditzan, hemen adierazten du

Lekua, data eta sinadura.

4. ERANSKINA

LAN ARRISKUEN PREBENTZIOAREN ERANSKINA

**Adjudikaziodunak bakarrik bidaltzeko"*

Kontratuaren datuak		
Espediente zk.	Kontratuaren iraupena:	Kontratuaren xedea:

Datu orokorrak: ☐ ADJUDIKAZIODUNA	☐ AZPIKONTRATA	Kontratista nagusia
		Azpikontratatutako jarduera

Sozietatean izena		Helbide soziala	
IFZ	Udalerria	Posta Kodea	Probintzia
Telefonoa	Faxa	Mugikorra	e-maila

Lantokiak (XXXXXXXXXX) kontratuaren xedea eta enpresako langile kopurua lantokiko					
Lantokia	Langile kopurua	Lantokia	Langile kopurua	Lantokia	Langile kopurua

Enpresa-jardueren koordinazioa	
Harremanetarako pertsona arriskuen prebentzioaren arloan	Kargua
C.N.A.E.	Entitate kudeatzailea edo laguntzailea Lan istripuan eta Gaixotasun profesionalean

Enpresak konpromisoa hartzen du, gutxienez, sei hilean behingo bilerak egiteko Segurtasun eta Osasun Koordinazioarekin. Enpresa adjudikaziodunaren ardurapekoa da bilera horien aktak egitea.

Prebentzio-antolamendua

Enpresak honako baliabideen antolamendu-modalitatea(k) d(it)u prebentziozko jardueretarako:

a)	☐	Enpresaburuak berak bere gain hartzea	b)	☐	Langile bat edo batzuk izendatzea
		Enpresaburuaren izena			Izendatutako langile kopurua, prebentzioan duten prestakuntzaren arabera
					Oinarrizko maila ☐ Bitarteko maila ☐ Goi-maila ☐

c) ☐ Prebentzio-Zerbitzu Propioa (SPP) edo Kanpoko Prebentzio-Zerbitzua (SPA), zehaztu espezialitateak:

Espezialitatea	*SPP*	*SPA*	*SPM*	*SPren izena*	*SPren arduraduna*	*SP telefonoa*
Laneko segurtasuna	☐	☐	☐			
Higiene industriala	☐	☐	☐			
Ergonomia eta psikosoziologia aplikatua	☐	☐	☐			
Laneko medikuntza	☐	☐	☐			

Prebentzioaren kudeaketa

Enpresak badu arriskuen ebaluazioa kontratuaren xede diren jarduera guztietarako?	☐	BAI	☐	EZ
Enpresak egina du prebentziozko plagintzarik arriskuen ebaluazioan oinarrituta?	☐	BAI	☐	EZ
Identifikatu da arrisku berezirik, hala nola, garaieran egindako lanak, arrisku elektrikoak, gune konfinatuak, etab.?	☐	BAI	☐	EZ
Enpresak badu enpresa-jarduerak koordinatzeko sistemarik? (LABL 24. art.)	☐	BAI	☐	EZ
Kontratuaren xede diren jarduerak egingo dituzten langileei honakoa bermatuko zaie:				
EE markako lan-ekipoak izan eta erabiliko dituzte	☐	BAI	☐	EZ
Osasuna zainduko zaie, lanari atxikitako arriskuen arabera	☐	BAI	☐	EZ
Prebentzioaren gaineko prestakuntza	☐	BAI	☐	EZ
Prebentzioaren gaineko informazioa arriskuei nahiz babes neurri buruz	☐	BAI	☐	EZ
Babes neurri kolektiboak eta indibidualak	☐	BAI	☐	EZ
Larrialdi neurriak lanak egiten diren tokian bertan	☐	BAI	☐	EZ
Lanak egiten diren tokian bertan berehalako arrisku larrien aurrean hartutako neurriak	☐	BAI	☐	EZ
Enpresak bermatzen du bereziki sentikorrak diren langileen, haurdunen eta adingabeen babesa?	☐	BAI		EZ
Enpresak egina du lan arriskuen prebentzioaren legezko auditoria? ☐ N/A	☐	BAI	☐	EZ

Behean sinatzen duenaren erantzukizuna da inprimaki honetan betetakoa egiazkoa dela bermatzea

Honako honek bete du	Kargua	Sinadura eta zigilua	Data

4. ERANSKINA

LAN ARRISKUEN PREBENTZIOAREN ERANSKINA

**Adjudikaziodunak bakarrik bidaltzeko"*

INPRIMAKIA BETETZEKO JARRABIDEAK

* Oharra: Ez da beharrezkoa inprimakian adierazitako informazioa egiaztatzeko agiririk aurkeztea. Dena dela, ZUGAZTEL M.P., S.A.ren kontratazio-organoak eskubidea du auditoriak egiteko, inprimakian adierazitakoa egiazkoa dela egiaztatze aldera.

Kontratuaren datuak

Adjudikaziodunak beteko du eremu hau.

Adjudikaziodunaren / azpikontratatutako enpresaren datu orokorrak

Datuak enpresa adjudikaziodunari edo azpikontratistari dagozkion adieraziko da.

Eranskin hau betetzeko eta ZUGAZTEL M.P., S.A.ri emateko eskatuko die enpresa adjudikaziodunak azpikontratei.

Enpresak ZUGAZTEL M.P., S.A.ri zerbitzua ematen dion lantokiaren datuak beteko ditu, nahiz eta helbide sozialarekin bat datorren.

ZUGAZTEL M.P., S.A.ren lantokiak, kontratuaren xedea eta langile kopurua lantokiko

Enpresak adieraziko du zeintzuk diren kontratuaren xede diren lantokiak eta zenbat langile arituko diren lantoki bakoitzean.

Enpresa-jardueren koordinazioa

Lan arriskuen prebentzioari lotutako gaietarako solaskidearen datuak adieraziko dira. Prebentzio-kudeaketa nola gauzatu dakien enpresako norbait izango da.

Lan istrupuan eta gaixotasun profesionalean kudeatzailea edo laguntzailea den entitatearen datuak sartuko dira.

Enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du, gutxienez sei hilean behin, Segurtasun eta Osasun Koordinazioaren bileren deialdiak egiteko, eta horien aktak egingo ditu. Bilera horietara honako hauek deituko dira: adjudikazioduna bera, ZUGAZTEL M.P., S.A.ren kontratuaren arduraduna eta azpikontratak, egongo balira. ZUGAZTEL M.P., S.A.ren Arriskuen Prebentzioko eta Lan Osasuneko Zerbitzua aholkulari gisa deitu daiteke edo, bestela, egindako bileren akten kopiak bidaliko zaizkio.

Prebentzio-antolamendua

Enpresaburuak berak bere gain hartuz gero prebentzio-kudeaketa, datu pertsonalak baino ez ditu adieraziko.

Langile bat edo batzuk izendatuz gero, "Langile hauen prestakuntza prebentzioaren arloan" maila bakoitzarentzat izendatutako langile kopurua adieraziko da.

Prebentzio-Zerbitzu Propioa (SPP), Enpresa arteko Prebentzio-Zerbitzua (SPM), edo Kanpo Prebentzio-Zerbitzu bat edo gehiago (SPA) aukeratu bada, espezialitate bakoitzerako modalitatea zehaztu beharko da. SPArekin hitzartutako espezialitateen kasuan, bakoitzarentzat adierazi beharko da zerbitzuaren izena, izendatutako arduradunaren edo teknikariaren izena, eta haren telefonoa.

Prebentzioaren kudeaketa

Kontratuaren xede diren jardueretarako bakar-bakarrik, eta ez enpresaren beste jardueretarako.

Arrisku bereziak identifikatzea: Prebentzio-printzipioak aplikatu ondoren arrisku larria izaten

jarraitzen badu, nahiz eta prebentziozko neurri osagarriak hartu diren; edo langilearen babesa erabat bermatu ezin denean, ezbada norbera babesteko ekipamendua erabilita. (Adib. Aldamioak muntatzea eta desmuntatzea, arnesa erabiltzen den garaierako lanak, edo gordetegien nahiz kupelen barruko lanak, zuhaitzak moztea…)

Lan arriskuen prebentzioaren legezko auditoriari buruzko galderari bakarrik erantzungo diote legez hala behartuta dauden enpresek, prebentziozko jarduerak egiteko baliabideen antolamendu-modalitatearekin bat.

Honako honek bete du

Inprimakian adierazitako datuak egiazkoak direla egiaztatzeko erantzunkizuna duen pertsonaren datuak emango dira. Enpresakoa izan beharko du, hura ordezkatzeko legezko gaitasuna duena.